



Kataluniari elkartasuna azaltzeko kontzentrazioak gaur Altsasun eta bihar Sakanan barna / 11

Gurseko kontzentrazio eremuan egondakoei omenaldia egingen die gobernua bihar / 5

Asko itxaron ondoren, Arakilgo hirigintza plana heldu den urterako indarrean nahi luke udalak / 3

San Migel, egun handia Aralarren eta festak Uhartan eta Olaztin. Gainera, feriak Etxarrin / 12-13



Bi mendi lasterketa: Olatzagutia-Urbasa larunbatean eta Etxarriko joan-etorria igandean / 15



Sortzailearenean

Jose Ramon Andak bere sortze prozesuaz azalpenak eman zituen larunbatean / 22-23

X-izpien makina Altsasura

Hura hartzeko Altsasuko osasun-etxean lanak hasi dira. Aldagelak tokiz aldatu eta bi bulego berri egingen dira / 7

Mankomunitateak, desagertzeko bidean

XABIER LASA NAFARROAKO GOBERNUKO TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA Sakanan 15na udal eta kontzeju eta 4 mankomunitate ditugu. Nafarroako toki administrazioaren berrantolaketaren ondoren, mankomunitateak desger litezke.

SATRUSTEGI

Tokiko Maparen berrantolaketa aspaldiko eskaera da Nafarroan. Zergatik?

Bestelako toki egitura bat aspaldi eskatzen zen, udalak, kontzejuak eta udalez gaindiko erakundeak antolatzeke eta berrantolatzeko. Gehiegi direlako. Hor bitartekoen eta diruaren galera bat dago. Gauzak pixka bat hobe antolatuta ziurrenik funtzionamendua askoz hobea izanen litzateke. Hori da gure azken helburua: dena berregin. Teknikoki tokiko planta esaten diogu. Beste tokiko planta bat antolatzea Nafarroa osorako.

Tokiko planta horren oinarrian zer dago?

Guk, lehenbizi, eskumenen birbanaketa egiten dugu. Hau da, eskumenak dira entitate publiko bakoitzak herritarrei begira zein lan egin behar dituen ezartzen dutenak. Esaterako, zeinek zaindu behar duen uraren hornidura, saneamendu sarearen mantenua, argiteria, kultur jarduerak, hondakinen bilketa... Horiek guztiak toki erakundeek egiten dituzte. Baina toki erakunde asko dauzkagu Nafarroan. Alde batetik, kontzejuak beren eskumenekin, gero udalak, bere eskumenekin eta batzuetan ez dago argi zein den norena; bestetik, mankomunitateak ditugu. Eta horien artean batzuk dira ur hornidurakoak, beste batzuk hondakinen bilketakoak, beste batzuk gizarte zerbitzuetakoak, beste batzuk euskara, kultura edo kirolekoak... Hau da, guk zehaztu nahi dugu, printzipioz, entitate bakoitzak zein lan egin behar duen. Hori ongi banatuz gero, kontzejuak eta udalak errespetatuko genituzke. Baina mankomunitate denak desagertzeko dira. Gaur egun Nafarroan dauden udalez gaindiko 100 egitura horietatik bakarrik 11 utziko ditugu. 11 toki entitate handi horiek eskualdeak izanen dira



Xabier Lasa larunbatean Satrustegin izan zen.

"PARLAMENTUAN URTE BUKAERA BAINO LEHEN EGONEN DA LEGEA. ONARTUZ GERO, ALDAKETA"

teke. Kasu honetan Sakana eskualde bat izanen litzateke. **Beraz, kontzejuak eta udalek segituko lukete, baina ibarreko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitatea desagertzeko litzateke.** Hori da. Baina zerbitzua ez da desagertzen. Egitura desagertzen da, baina dena integratzen da beste egitura bakar eta handiago batean, eskualdea izenekoa. Zerbitzu guztiak handik bideratuko lirateke. Gaur egun mankomunitateetan dauden zerbitzu guztiak gehi beste batzuk eskualdetik emanen lirateke. **Eskualdean bat eginen lukete Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen eta Sakanako Mankomunitatearen zerbitzu guztiak, ezta?** Hala da. Gerentzia bakar batekin eta antolaketa bakar batekin. Horrek jasoko litzuzke orain mankomunitateetan dauden langile

guztiak eta ondare, aberastasun eta diru guztiak eta eskualdetik berrantolatuko lirateke. **Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean ez dira soilik Sakanarako lanean ari. Banatu egin beharko da?**

Gaur egungo egiturak askotan ez du zentzu handirik. Irurtzun aldeko mankomunitatean Imotz aldeko udal batzuk daude, Itza aldeko beste batzuk eta gero Sakanakoak (Irurtzundik Arruazura). Guk nahi dugu Irurtzundik Ziordiraino denak eskualde bakarrean sartzea, eta gizarte zerbitzuak, besteak beste, lurralde horretarako antolatu. Beraz, besteak dagozkien eskualdeetan integratuko lirateke, ez lirateke Sakanakoak izanen. Beraz, mankomunitate horren gaur egungo lurraldea zatituko litzateke.

Proposamenak zein harrera izan du Sakanako eragileen artean?

Legegintzaldia hasi bezain pronto hasi ginen lan honekin. Orduz geroztik parte hartze prozesu luze eta zabal bat egin dugu. Hitz egin dugu Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin. Toki guztietan bilerak egin ditugu, Sakanan ere, noski,

DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI GOZATU EUSKARA!

Ver vídeo Bideoa ikusi

Matricúlate Izena eman ezazu

Información sobre los centros y ayudas económicas: Euskaltegi eta loguntzei buruzko infomazioa:

948 012 012

www.euskaraikasi.nafarroa.eus
www.aprendeeuskera.navarra.es

Antolatzaileak/Organizan
Udalak/Ayuntamientos: Aiz/Agutz, Ansón/ Antsoain, Aranguren, Valle de Arce/Artzibar, Villava/ Atarrabia, Auritz/Burguete, Barañain, Basaburua, Berrioplano/Berriobeiti, Berriozar, Burlada/Burlata, Valle de Egüés/Eguesibar, Erro, Esteribar, Etxauri, Galar, Puente la Reina/Gares, Imotz, Pamplona/Iruña, Estella-Lizarrá, Luzalde/Valcarlos, Odietá, Cendea de Olza/Ditza Zendea, Orkoien, Tafalla, Huarte/Uharte, Ultzama, Zizur Mayor/Zizur Nagusia. Mankomunitateak/Mancorridades: Sakana, Iruñu/Iruñu, Valdizarbe/Izarbeibar, Batzorde Nagusiak/Juntas Generales: Aezkoa, Roncal/Erronkari, Salazar/Zaraitzu.

Mank

Subvención 50% de la matrícula

Diru-loguntza: matrikularen %50

Más información / Informazio gehiago: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua **948 464 840** Itsasi euskaltegia **948 468 258**

Grupos de euskera del curso 2017-2018 en Sakana (AEK): 2017-2018 ikasturtean Sakanan sortutako taldeak (AEK):

<p>ALTSASU:</p> <p>INIZIAZIOA: 09:30-11:30 (1,2,3,4) • 18:00-20:00 (1,2,3,4)</p> <p>A-1: 09:30-11:30 (1,2,3,4) • 19:00-21:00 (1,2,3,4)</p> <p>A-2+ 09:30-11:30 (1,2,3,4) • 19:00-21:00 (1,2,3,4)</p> <p>A-2+B1: 16:30-18:30 (1,2,3,4)</p> <p>B-1: 19:00-21:00 (1,2,3,4)</p> <p>B-2: 09:00-11:00 (1,2,3,4)</p> <p>B-2: 09:30-11:30 (1,2,3,4)</p> <p>B-2: 17:15-19:15 (1,2,3,4)</p> <p>EGA: 09:30-13:30 (larunbatetari)</p>	<p>ETXARRI ARANATZ:</p> <p>B-1: 15:00-16:30 (1,2,3,4,5)</p> <p>INIZIAZIOA: 15:00-16:30 (1,2,3,4,5)</p> <p>ESKOLAN...</p> <p>ARRUAZU:</p> <p>A-1: 16:00-18:30 (2,4)</p> <p>AUTOIKASKUNTZA: Maila guztietan Todos los niveles</p> <p>IRURTZUN:</p> <p>A-2: 15:00-16:00 (1,2,3,4) + etxeko lanak</p> <p>B-1: 10:00-12:00 (1,2,4)</p>
--	---

1. lunes/astelehena • 2. martes/asteartea • 3. miércoles/asteazkena • 4. jueves/osteguna • 5. viernes/ostirala

Todavía estás a tiempo, matricúlate! Dirañdik ere garaz zaude erren izena!

Más euskaltegis / Euskaltegi gehiago: www.elaide.eus

azaltzeko zein den gure helburua, nola ikusten duten... Printzipioz Sakanan ikusten dugu nahiko ongi antolatutako tokia dela. Baditu bere mugak, jakina. Alde batetik, geografikoki oso ongi definituta dago, Aralar eta Urbasa-Andia Satrustegi mendiek eta gero Irurtzun alde batetik eta Arabako muga bestaldek; lurraldea oso ongi markatzen dute. Salbuespen batzuk ditugu: Ergoiena, Arakilgo hainbat herri... Ez dira kasu zailak, eta nire ustez nahiko ongi hartuko lituzkete zerbitzuak komunean jartzea Sakanako beste herriekin batera. Nik uste dut Sakanan ez dela arazo handirik egonen. Arazo batzuk egonen dira toki guztietan. Badakizu mudantza egiten duzunean beti arazoren bat opatzen duzula. Baina epe ertainean onurak askoz ere handiagoak izanen dira, dudarik gabe, zerbitzuari begira, populazioari begira, kalteak baino.

Zertan da tokiko planta horren berri?

Nafarroako Gobernutik bi urteko parte hartze prozesua egin dugu toki entitateekin eta udal hautetsiekin. Departamentukoak orain alderdi politikoeekin negoziatzen ari gara. Lege proposamena badugu eta orain adostu behar da, Nafarroako Parlamentura eramaten duzunean onartuko dutela segurtatzeko. Horrek nabardura asko sartze behartzen gaitu, zeren politikan alderdi bakoitzak bere ikuspegia du. Hau, printzipioz, alderdi guztiak ez badira, gehienak onartzea nahiko genuke. Uste dugu benetan gauza ona dela guztiondako. Baina, gutxienez, segurtatu gehiengo bat duela Nafarroako Parlamentuan. Horretan gaude, negoziaketa fasean.

Noiz iritsiko da Nafarroako Parlamentura? Noiz gauzatuko da toki planta berria?

Lege proiektua, ni ia ziur naiz, Parlamentuan urtea bukatu aurretik sartuko dela. Parlamentuan bere deliberazio prozedura du. Bi-hiru hilabeteko kontua. Gehienez jota datorren udaberriko onartuta izanen dugu. Jakina, legea onartuz gero prozesua etorriko zaigu gainera, eskualdeak sortzeko eta orain indarrean dauden entitate horiek desagertzeko edo aldaketa egiteko. Eta hori luze izanen da. Hori luzea eta arazoekin izanen da. Baina, beno.

Toki planta ezarrita, tokiko erakundeak Nafarroako Gobernuaren aurrean eskale sentitzen segituko dute?

Lehen aipatu dizut eskumenen banaketa berri bat etorriko dela; egitura berri baten definizioa. Baina, badago hirugarren ardatz bat: finantziario berri bat. Orain arte udalak beti sentitu izan dira foru gobernuaren azpiko elementu bezala. Hori ez da horrela. Bi erakunde desberdinak dira, baina bat ez da bestea baino gehiago. Nafarroako Gobernu ez da, nolabait, bestearen gainean dagoen erakunde bat. Ez da bere aita. Ez da bere ama. Ez da deus ere. Besteari askatasuna utzi behar dio. Guk finantziario eredu horretan askatasun askoz gehiago ematen diegu udalei, beren kaxa erabakitzeko dagokien diruarekin zer egin. Diru banaketa justuago bat proposatzen ari gara. Baina, ziurrenik, hitzaldiren bat emanen dugu Sakanan, tokatzen denean. Guk nahiko genuke kontu hau guztia, zaila eta konplexua izan arren, gutxienez, jendeak, interesa duenak, behintzat, uler dezala, eta informatzeko aukera izan dezala.

Hirigintza plan berria heldu den urterako

Arakilgo gaur egungo hirigintza plana 1994koa da. Nafarroako Gobernuarekin izandako desadostasunen ondorioz zazpi urtez gelditu egon ondoren, Arakilgo Udala plan berria lantzen ari da eta lastailerako espero dute hasierako onespina.

ARAKIL

Arakilgo alkate Paz Gonzalezek azaldu digunez, "orain plangintza berrian buru belarri sartuta gaude. Lastailerako hasierako onespina eman beharko lioke udalak. Erredakzioan ari gara". Ondoren, alegazioetarako epea etorriko da, baina Arakilgo Udalaren nahia da 2018rako onartua egotea. Arakilen indarrean den hirigintza plana 1994koa da eta berritzeko nahikoa lan izan ditu udalak, Nafarroako Gobernuak hirigintza araudian Abiadura Handiko Trena jasotzea eskatzen baitzion. Zazpi urteko blokeoaren ondoren, foru administrazioak jarriera aldatu zuen 2014ko garrarilean eta tramitazioa abiatu zen. Gonzalezek berretsi du abiadura handiko tren azpiegituraren kontra daudela.

Inasako industrialdeko lanak "ez doaz guk uste genuen bezain azkar", azaldu digu Gonzalezek. Aurki Nasuvinsa enpresa publikoko ordezkariekin izanen duten bileran "gauzak argitzea" espero du Arakilgo alkateak. "Printzipioz, Udalez Gaiendiko Proiektu Sektoriala egin behar zuten, baina oraindik ez dute gauzatu". 45.000 metro karratuko eremua da industria hartzeko egokitu behar dena. Bitartean,



Paz Gonzalez alkatea, Xabier Lasari Satrustegiko Mikorena etxeaz hizketan.

industrialdeko Irurtzungo zatian makinak aspaldi ari dira lanean, pabilioi batzuk botatzen eta kaleak zabaltzen, besteak beste.

Legegintzaldia bukatzeko

Agintaldia bukatu bitartean Gonzalezek zein lan egin nahi lituzketen azaldu digu: mendi sarea despeditu nahi dute, turismoari ere bulkada eman nahi diote, Izurdiagako auzo batean saneamendua hobetuko du udalak. Aizkorbeiko sareak eta zorua berritzeko lanak 2019an egingen ditu Arakilgo Udalak, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza

jaso ondoren. Gonzalezek jakinarazi digunez, Izurdiagako geltoki auzoa eta Etxarrengo zati bat faltako litzateke sareak eta zorua berritzeko. Aurrenengorako diru-laguntza eskaera atzera bota dio gobernuak.

UDALAREN ETA GOBERNUAREN AHT-RI BURUZKO IRITZI DESBERDINENGATIK 7 URTEZ GELDI EGON DA

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Satrustegiko lanez Igor Lanzekin eta Paz Gonzalezekin.
- Tren egitasmoen inguruko bi ikuspuntu.
- Tokiko maparen moldaketaz Xabier Lasarekin

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE



ASTEKOA

ANABEL ARRAIZA ARTIEDA

Sakanako eskualdeko larrialdi zerbitzua

Osasun Kontseilaria den Fernando Domingezek adierazi bezala, hilabete honetan jakin izan dugu Osasunbideak gutxienez Eskualdeko lau larrialdi-zerbitzu martxan jarriko dituela laster Nafarroan, eta horietako bat Sakanan izanen dela. Eskualdeko larrialdi-zerbitzu honetan larrialdietan adituak diren osasun-langileak izanen ditugu. Eskualdeko larrialdi-zerbitzuekin landa eremuetan bizi diren herritarrek larrialdi zerbitzuetatik 15 km baino gutxiagora egotea bermatzen da. Baina, larrialdi zerbitzua izanik, zalantza bat dator kit burura: gertutasuna bermatzeaz gain, bermatuko al da herritarrek euskaraz artatuak izateko eskubidea?

Mobilizazio bat baino gehiago ezagutu dugu Sakanan Osasun Zerbitzuak euskalduntzeko eskatuz, ehunka sakandarren sinadurak bildu eta Nafarroako Gobernuari zuzenduz. Aurrekariak baditugu bailaran, beraz horrelakorik egin behar ez izatea litzateke zentzuzkoena. Osasuna ez da gaixotasun eza bakarrik izaten; Munduko Osasunaren Erakundeak dioen bezala, osasuna erabateko ongizate fisiko, psikiko eta soziala da, non momentu zailtan dagoen gaixoak, sendatzen eramanen duten profesionalen konfiantza bat eraiki beharra duen. Gaixoak hautatzen duen hizkuntzak zeregin garrantzitsua jokatzen du konfiantza hori eraikitzerakoan. Euskararen legeak dioen bezala, eremu euskaldunean kokatzen da Sakana. Bertako herritarrek osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, beraz martxan jarri aurretik: EUSKARA ESKAKIZUNA LANPOSTU GUZTIETAN, bai ala bai!

HARA ZER DIEN**Zaharren eguna****SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA**

Aurten ere urriaren leian adinekoen eguna ospatuko da. Beharbada, Katalunyak erreferendumaren eraginez, inor konturatu gabe pasatuko da, hedabideetan ez diote tarterik egingo. Ez da GUAIXEREN kasua izango, nahitaez, irailaren 29rako SASOIAri egokitu baitzaio kolaborazio artikulua, eta ez diogu uko egingo gaiaz mintzatzeko aukerari.

Horrelakoetan, ofizialki zabaltzen den mezua atsegingarria gertatzen da, hunkigarria. Urtean zehar baztertuak egon arren, egun horretan, ohorea, esker ona eta elkartasuna eskatuko zaio gizarteari. Goraipatuko dituzte zaharrok gizarteari egin

dizkiogun ekarpenak, gure lanak, gure borrokek, ongi merezia daukagula atsedena, bizi oparo eta duin bat. Zoritxarrez, ez da hau adineko gehieneko egoera, errealitatea; neketsu, kezkatu bizi beharra baizik. Ekonomikoki gero eta estuago, gero eta murriztago, erretiro-pentsioak ez dira igotzen gauzak garestitzen diren arabera, %0,25 bakarrik. Azken urte hauetan %17 galdu dugu eta Pentsio Sistema Publikoak porrot egingo duen mehatxua luzatzen digute.

Pentsio duinak izateko dugun eskubidea Estatuak bermatu behar digu. Baliabide publikoak pertsona guztiak duintasunez bizitzeko ahalbideratu behar dira, eta beraz, pentsioen euskarri izateko ere bai.

Onartezina da pentsioen finantzaziorako bide bakarra kotizazio soziala izatea. Badaude konponbideak: diru-sarrerak zergen bidez osatu, soldata altuen kotizazio topeak kendu gutxieneko soldata jaso, krisialdian galdutako enpleguak berreskuratu, iruzur fiskala eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka...munduko Adinekoen egunean, "Adinekoak Krisiaren Aurka" koordinakundeak mobilizatzeko deia luzatzen dizue adinekoen kolektibo eta elkarte guztiei, gure eskubideak aldarrikatatu eta gure duintasunaren galera dakarten egoerak salatzen. Lekua: Sarasate Pasealekua, Foruen Monumentuan, goizeko 11:00etan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutun edo iriti-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapitulu erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekokoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1. 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNAK**Preso eta iheslayek etxien nahi ttugu****GARBIÑE KARASATORRE ALDAZ**
ETXARRI ARANATZ

Badakigu zeinen eskuetan dauden espetxeetako giltzak. Urteak daramatza espetxe politika anker honek. Gogor jo du gatazkak gure herrian. 40 urtetan gure herrian beti izan da preso politikoren bat edo beste, iheslari politikoren bat edo beste. Bat ez! Askok zoritxarrez!

Eta beti berdin esan genezake. Etsipen berean erori gaitzake. Zeinek du espetxeetako giltza? Etsipen horren eraginez, askok ere pentsatuko dute ez dugula ezer egin orain arte, edo ez dugula ezer lortu azken finean; eta eginda ere, Estatuak duela gure senitarteko eta lagunak kalera ateratzeko giltza. Etsipenaren zurrumbilano sartzen gara.

Baina baditugu arrazoiak bestela pentsatzeko:

Urte luze hauetan bi hitz potolok egin izan gaitu indartsu. ELKARTASUNAK ETA MAITASUNAK. Eta indartsu egin behar gaitu orain ere!

Astebururo-astebururo batetik bestera doazen maitasun, konpromiso eta elkartasun uholdeak egin behar gaitu hemendik aurrera ere indartsu... Dueñasetik Castellora doana, Castellotik

A Lamara, A Lamatik Curtisa, Curtisetik Puertora, Puertotik Saint Murrera; eta Saint Murreretik Lannemezanera... Asier, Juan Ramon, Hodei, Luis, Unai, Jon Gurutz eta Oihanek sentitzen duten elkartasuna, maitasuna eta konpromisoak egiten gaitu gu ere, senide bezala, indartsu.

Elkartasuna, maitasuna eta preso eta iheslari guztiak etxeratze konpromisoa giltzaperatuko dituen giltzarik ez da oraindik asmatu!

Elkarbizitzan, benetako bakean eta gatazkaren konponbidean pausoak eman nahi dituen gizarte batek ezingo du etorkizunik marraztu, kartzelak eta erbestea euskal herritarrez beteak dauden bitartean... Larunbat honetan, Etxarrin, arratsaldeko 19:30ean beste zita bat dugu elkartasunarekin, maitasunarekin eta etxean nahi ditugun preso eta iheslariekin. Hutsik ez egin!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIAwww.guaixe.eus**Erredakzio burua:**Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus**Erredakzioa:**Maider Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus**Maketatzailea:**Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus**Publizitatea:**Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.euseta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus**ARGITARATZAILEA:**Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245**Koordinatzailea:**Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus**Diseinu zerbitzua:**GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus**Administratzailea:**Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus**Kolaboratzailea:**

Eñaut Agirrenbengoa Apaolaza

Zuzentzailea:

Felix Alzelai Iriarte

Legu gordinua: NA-633/1995**Tirada:** 3.200**LAGUNTZAILEAK****Mank**
s a k a n a**BAZKIDEAK****Nafarroako Gobernua**
Gobierno de Navarra



Altsasuko udaletxetik errefuxiatuak hartzeko egunen atzera-kontua kentzen.

Estatua errefuxiatuak hartzeko kopurura "ez da ezta hurbildu"

Derrigorrez hartu beharreko 9.323 errefuxiatuetatik 1.089 besterik ez ditu hartu estatuak.

SAKANA

Irailaren 26rako falta ziren egunak (0) eta Nafarroan hartzeko falta den errefuxiatu kopurua (265) zuen kontagailua kendu zuten asteartean udaletxetik Sakana Harrera Haranako Juan Pedro Higuero eta Josu Rubiok, Pedro Jimenez zinegotziaren laguntzaz. Duela bi urteko iraillean hondartzan hildako Ailam haur iheslariaren argazkiak askoren bihotza eta arima kolpatu zuen. Argazki haren itzalera Europako Batasunak 180.000 iheslari hartzeko konpromisoa hartu zuen. Estatuak agindutako errefuxiatu kopurua hartzeko epea gaur arte zuten.

Estatuak agindutakoa ez dute bete, "ezta hurbildu ere" Sakana Harrera Haranako kideen esanetan. Espainiak, esaterako, hartuko zituen iheslari kopuruaren %11,4 besterik ez ditu hartu. Azken data iritsita "Altsasuko udaletxean atzera-kontua egotea zentzurik ez duenez" kendu egin dute. Errefuxiatuen aldeko taldetik salatu dute estatuak "dauden bezala" segitu nahi dutela, "edo haiek nahi dituzten errefuxiatuak ekartzea. Hor ere xenofobia dago, zer errefuxiatu etorri behar diren au-

keratu nahi dute". Azken aldian soilik Ukrainako eta Venezuelako errefuxiatuak hartu dituztela gaztigatu dute taldeko ordezkariak.

Sakana Harrera Haranako kideek gogorarazi dute Ailamen moduan, "milaka eta milaka pertsona hil direla hobi komun bihurtu den Mediterraneoan. Estatuaren asmoa da errefuxiatuak euren mugetatik kanpo mantentzea, hirugarren munduko muga horretan: Marokon, Libian, Turkian... Honantz ez hurbiltzeko". Iheslariak han ez direla geldituko gaztigatu dute Sakana Harrera Haranetik; "haien asmoa etortzea da". Horregatik, errefuxiatuak "baldintza egokietan pasatzea eta, legeak markatzen duen moduan, behar duenari errefuxiatuaren estatutua ematea" eskatu dute.

Horrekin batera, Mediterraneo itsasoan halako oztoporik ez jartzea exijitu dute Sakana Harrera Haranako kideek: "hor jendeak nola bukatzen duen badakigu". Sakandarrei errefuxiatuen egoera salatzeko antolatutako protestetan parte hartzea deitu dute taldetik. Bihar, 12:00etatik aurrera, Etxarri Aranzako plazan egon dira.

Gurseko kontzentrazio eremuan omenaldia

Iparraldetik gertu dagoen kontzentrazio eremuan preso egondakoen 370 senide, Nafarroako Gobernuako, Parlamentuko eta toki erakundeetako ordezkariekin batera parte hartuko dute biharko omenaldian.

SAKANA

1936ko estatu kolpetik ihesi joandako iheslariak hartu zituen Oloroe-Donamariako Gurseko errefuxiatu eremuak. Haietatik, gutxienez, 27 sakandarrak izan ziren. Exilioa eta errefuxiatu eremuak ezagutu zituzten 16 altsasuarren 33 senide izanen dira ekitaldira joanen direnak, Nafarroako Gobernuak baieztatu digunez. Besteen senideak ez omen dira harekin harremanetan jarri.

Gurseko esparruan sartuta egon ziren 500 nafar ingururi omenaldia egingen zaie bihar. Haien memoria eta biktima haiek egitarako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidea aldarrikatuko da. 11:00etan hasiko den ekitaldi publikoa da eta Uxue Barkos, Nafarroako lehendakaria, Ainhoa Aznarez, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria eta Pablo Azcona, Nafarroako Udaleri eta Kontzejuen Federaziko lehendakaria izanen dira. Zenbait hitzaldiren ondoren (horien artean Raimond Villalbarena, Terres de Mèmoire(s) et de Luttes elkarteko lehendakaria eta Gursen egondakoen ondorengoa dena) ekitaldiaren akaberan Barkosek hitz egingen du, kontzentrazio esparruan izan ziren nafarren omenezko monumentua mustuko dute eta lore-eskaintza egingen dute bertaratutakoek.

Ekitaldi horren ondoren, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Akitania Berriak elkarrekin antolatutako aintzatespena izanen da. Han, Uxue Barkos, Iñigo Urkullu eta Aki-



Biharko omenaldia iragartzeko egindako bideko irudi bat. NAFARROAKO GOBERNUA

tania Berriko lehendakaria den Alain Rousset izanen dira. 13:00etan izanen da ekitaldia eta Euro-eskualdearen lankidetzaren politikaren barruan dago. Helburua da diktaduratik ihes egin da, Gursen kontzentrazio eremuan bukatu zuten pertsona horiek defendatu zuten demokraziaren eta askatasunaren balioa nabarmentzea.

27 sakandarrak

Nafarroako Gobernuak irailaren 25ean eguneratutako zerrendan 16 altsasuar, 4 ziordiar, bi uhartear, bi etxarriar eta Izurdiagoko, Irurtzungo eta Irañetako bana ageri dira. Guztiak gizonak. Herririk aipatzen ez den zerrendan Sakanan ohikoak diren abizenak daude, beraz, pentsatzekoa da sakandar gehiago egon daitezkeela. Horiek identifikatzeko laguntza eskatu du gobernuak.

Identifikatzeko laguntza

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua Gursen egondako nafarren izenekin bi zerrenda argitaratu ditu. Batean, herria agertzen da. Bestean, ordea, ez da herria aipatzen. Gobernuak nahi luke zerrenda horietan agertzen diren pertsonen inguruko informazioa jasotzea eta haien senideekin harremanetan jartzea. Horretarako pazyconvivencia@navarra.es e-posta eta 848 426 522 telefonoa daude.

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Ollite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Errusiak badu bere plaza gorria

Autobiaz bestaldeko aldameneko herrietakoek Errusia deitzen diote Satrustegiri, argi ordu gutxiago dituelako. Sareak eta zorua berritzeko lanak baliatuta, festetan dantzaldia izaten den tokian zoru gorria jarri dute satrustegiarrek.

SATRUSTEGI

Kontzeju buru Igor Lanzek herriarendako larunbatekoa egun "handia" zela nabarmendu zuen; "garrantzitsuena lehen zegoen sare bakarra kentzea zen. Euri urak eta ur-beltzak sare bakarrean jasotzen ziren. Orain fundamentuz dago". Lanak egiteko "urte asko" zain egon direla gogorarazi zuen Lanzek.

Paz Gonzalezek, Arakilgo alkateak azaldu zuenez, "herria oso txukun gelditu da. Esfortzuak merezi izan du". Gonzalezek nabarmendu zuen udalak egindako ahalegina: "hau legegintzaldiko inbertsio handiena izanen da". Xabier Lasa, Toki Administrazioako Zuzendari Nagusiarendako "pozagaria da bulego lanak gero ondorio pozgarriak dituela ikustea: obra bihurtzen da; eta herriaren onerako. Hori da beti helburua, eta pozgarriena".

Lanzek jakinarazi zuenez, euren hurrengo erronka etxeetako eta kaleetako argiteriaren kableak lurpetik eramatea izanen da. Horretarako, sarea jarria dute, eta diru-laguntza ere badute. Telekomunikazioetarako beste sare bat ere prest dute, zuntz optikoa sartzeko, iristen denerako. Bi sare horiek jartzea Arakilgo Udalak pagatu ditu.



Mustutzeko talde argazkia. Ezkerretara aska jartzea falta da, eta iturria frontoian.

Mikorena

Lanzek azaldu digunez, euren asmoa haurrendako jolas-parkea handitzea litzateke. Horretarako, Mikorena etxearen aurreko aldean harresiz itxita dagoen espazioa publiko izatea nahi lukete satrustegiarrek. Eskaera egina diote etxearen jabea den Nafarroako Gobernuari, baina ezezkua eman die. Larunbatean eskaera berretsi zioten Lasari. Etxebizitzaz galdetuta, Lasak esan zuen, "pena da halako aukerak dituen etxe handi bat hutsik mantentzea. Uste dut mu-

gitu beharko genukeela. Ez bada udalerako, Sakanako etorkizuneko Eskualderako. Komunean egin daitezkeen gauzen artean egon daiteke hor gizarte zerbitzuetarako edo hirugarren adinerako zerbitzu batzuk emateko oso toki aproposa. Etorkizuneko aukera bat da". Bestalde, frontoi ondoan babes ofizialeko 14 etxebizitza egiteko egitasmoa izan zen. Hura bertan behera gelditu zen, eta orain halako hiru etxe eta prezio libreko beste zazpi egiteko egitasmoa bideratzen ari da udala.

Ennecon pozik udan izandako bisitari kopuruarekin

Bisitariendako egunero zabaltzen zuten aurreneko uda izan da eta bi hilabeteetan 600dik gora izan dituzte.

ETXARRI ARANATZ

Enneco, haritzaren memoria parkea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan da garilean eta agorrilean. Nafarroako Estatuaren memoria gordeko duen parkeak jendearen jakin-mina

sortu du eta seiehundik gora bisitari hartu dituzte. Ennecoko komunikazio arduradun Amaia Zabalak erantzunarekin oso pozik daudela esan digu. Udakoaren ondoren bisita gidatuena eten egingen dute. Talderen bat

sortuz gero, bisita puntualak egingen lituzkete. Zabalak argitu digunez, udaberrian atzera ere zabalduko dute bisitetarako. Bitartean ikastetxeetako ikasleak izanen dira parkea bisitatuko dutenak.

Haritzaren memoria parkea auzolanean eraikitzen ari dira. Boluntario talde finko bat dago, eta Euskal Herri guztitik joandakoak ere aritzen dira. Lagundu nahi duenak Enneco sare sozialetan jarraitu eta hala jakinen du noiz egiten diren deial-



Mintzakideendako jarduerak osagarriak antolatzen dira. Hala etorri zen Alex Sardui.

Mihia euskaraz dantzatzeko, Mintzakide programa duzu

Talde txikietan elkartu eta lagun artean, astean behin, euskaraz hitz egitea, praktikatzea, da helburua

SAKANA

Euskara praktikatu eta bizi nahi duen jendea badago Sakanan. Baina ez du norekin euskara hitz egin. Edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera nahi dutenak izan daitezke mintzakideak.

Bospaseiko talde txikietan elkartzen dira mintzakideak, denendako egokia den egun, ordu eta tokian. Azken hori parte-hartzaileek erabakitzen dute. Tabernan, kafetegian edo paseoan elkartu daitezke. Talde bereziak sortzeko aukera ere badago, esaterako, gurasoena. Horrek ere aukera emanen luke haur

eta gurasoak euskaraz arituko liratekeen jarduerak antolatze-ko, parte-hartzaileek hala nahiko balute.

Etxetik atera gabe ere praktikatu daiteke euskara eta mintzakide izan. Horretarako www.mintzanet.eus web orria dago.

Izen-ematea

600 482 024 telf, sakana_mintza@aek.eus e-postan edo Facebook-eko Sakanako Mintzakideak profilaren bidez egin daiteke. Gainera, www.sakanamintza.blogspot.com bloga kontsultatu dezakezu. Informazio gehiago Mank-eko Euskara Zerbitzuan edota AEKren Itsasi euskaltegian..



Parkean auzolanean. WWW.ENNECO.EUS

diak. Egitasmoak aurrera egiteko finantzazioa ezinbestekoa da eta www.enneco.eus web orrian Enneco-lagun egiteko aukera dago. Nafarroako Gobernuaren Mecna zigilua du proiektuak eta norbanakoek egiten duten diru ekarpenaren % 80 errenta aitortpenean desgrabatzen duela jakinarazi digu Zabalak. Egitasmoaren aldeko bono laguntzak eskuratzeko aukera badago. Haiek Arbizuko Txistorra egunean eskuratu ahalko direla aurreratu digu.

Intxostiapunta betiko martxara bueltatuko da

Harremanetarako bideak: 608 617 778, 948 564 785 edo intxostiapunta@altsasu.net

ALTSASU

Udal Gazteria Zerbitzuak Intxostiapunta gazte guneko atea zabalduko ditu berriro. Eta aurreko urteekin alderatuta aldatu izanen dira. Izan ere, Txiribulo haur eskolak bere egoitza propioa duenez, bi urteren ondoren gazte gunean zuen espazioa libre gelditu da berriro. Haurrek erabilitako beheko solairuan lan txiki batzuk egingen ditu udalak eta, horren ondoren, betiko martxan bueltatuko da gazte gunera. Eta, hasteko, patioa atetik sartu beharko da berriz.

Intxostiapuntako azpiegitura, adinagatik, bi eremutan banatuta dago. Beheko solairua 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduta dago. 12 eta 16 urte arteko nerabeek, berriz, lehen solairua dute. Gazte gunetik pasatzen denak honako espazioak izanen ditu erabilgarri: bilerak egiteko, ikasteko, musika entseguak egiteko, sukaldea, ziberra. Wifia dago eta proiektorea, pantaila... maileguan hartzeko aukera dago. Eraikin berean daude Gazte Informazio Gunea eta Sex-Gunea, sexu-aholkularitza.

Ordutegia

Larunbatean neguko ordutegia mustuko dute: astelehenetik ostegunera, domeka eta jai-egunetan 17:00etatik 21:00etara; ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara eta ekintza berezietarako ordutegia 17:00etatik 01:00etara. Bulego ordutegia, berriz, astegunetan, 07:30etik 15:00etara.



Langileak hasiak dira osasun-etxean lanean.

Hasi dira osasun-etxea handitzeko lanak

X-izpien makina jartzeko lanak egingen dituzte. Langileen egungo aldagelan egonen da tresneria berria. Aldagelak eta bi bulego osasun etxeko eraikin berriaren gainean egingen dituzte eta hara igotzeko eskailera kanpotik eta estalita jarriko dute.

ALTSASU

Nafarroako Lehen Mailako Osasun Arretako Estrategiaren barruan, Osasun Departamentuak Altsasuko osasun-etxean erradiologia zerbitzua ezartzea erabaki du. Zerbitzu hori hartzeko, ordea, Altsasuko osasun-etxea 110 metro karratutan handitu behar da. Berrikuntza-lanak direla eta, gaur egun dauden eremuak berriro antolatu beharko dira, erabiltzaileen irisgarritasuna eta arreta errazteko; baita langileena ere.

Langileak pasa den astean hasi ziren prestaketa lanekin. Erri-Berri SL enpresak egingen ditu lanak eta haien truke 269.957,05 euro jasoko ditu. Behin lanak despedituta, erradiologia digitaletako ekipamendu erosi du Osasun Departamentuak eta, horretarako, 200.000 euro bideratuko ditu.

Lanen nondik norakoak

Txema Calleja Pascual Altsasuko osasun etxeko medikua eta

zuzendaria da. Berak azaldu digunez, osasun etxeko eraikin berriaren gainean langileen aldagelak eta bi bulego egingen dira. Obra berriak ez du planta guztia hartuko. Eta hara igotzeko eraikinaren kanpotik eskailera estaliak egingen dira. Gaur egungo aldageletan X-izpien makina jarriko da. Behar bezalako segurtasunarekin erabiltzeko gela hori berunez forratuko dute langileek. Lanek hila eta erdi iraunen dute, gutxi gorabehera. Larrialdietarako sarrera ere moldatu egingen dute.

Horrekin batera beste bi lanen berri eman digu Callejak. Alde batetik, Autobus geltokiaren eta osasun etxearen arteko espazioan hesi bat jarri da. "Eskolara joaten ziren haurrak hortik zuzenean aparkalekura sartzen ziren, eta larrialdietara autoekin ateratzen ginenetan autoarekin haiek harrapatzeko arriskua zegoela ikusten genuen. Horregatik, bost metro gehiagoko

buelta egin beharko da orain eta autobus geltokitik pasatu".

Larrialdiekin zerikusia duen beste lan bat ere egingen da aurrerantzean. Elurra eta izotza egiten duen egunetan medikuen eta erizainen autoak kalean egoten dira. "Larrialdi bat egonez gero, lehenik autoari elurra edota izotza kendu behar diogu. Azkartasuna galtzen dugu. Horregatik, osasun kontseiluari bi autorendako estalpe bat eskatu genion". Zuzendariak esan digunez, larrialdi eremuaren parean jarriko dute estalpea.

Tresneria berria

Lanak egin ondoren X izpien makina jarri eta teknikariek hura egoki jarri beharko dute. Callejak ez daki noizko egonen den erabilgarri. "Suposatzen dut Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun eskualdeetako herritarrendako izanen dela (Lakuntzatik Ziordira)". Guztia prest dagoenean makina erabiliko duen teknikari bat beharko da.

Zuzendariak azaldu digunez, "guk dagoeneko Interneteko barneko sarearen bidez jasotzen ditugu plakak ordenagailuan. Zentralizatuta dago.

Makina berriaren zain, Altsasuko osasun etxeak ekografoa hartu zuen joan den urte akaberan. Harekin "sorbalduko minak, tendoiak zer moduz dauden..." ikusteko aukera dute. "Kontsultan laguntzeko, zalan-tzak argitzeko, diagnosis indartzeko beste tresna bat da" esan digu Callejak, eta argitu du benetako ekografia zuzena ez dutela egiten; "asko ikasi behar da, lan handia egin". Medikuarri dira erabiltzen ekografoa, nahiz eta erizainek kasu jakinetan erabiltzeko aukera luketen ez dira erabiltzen ari.

Zergatia

Osasun etxea handitzea eta bi tresna berriz hornitzearen arrazoiak galdetu diogu Callejari: "Osasunbideak Lehen Arretako zerbitzua hobetzeko proiektu handia du". Hor sartuko litzateke ekografoaren etorrera. "Osasun zerbitzuak eskualdeko antolatzeke beste programa bat ere badago". Eta horri lotuta legoke X-izpien makinaren etorrera.

Altsasuko osasun etxeko zuzendariak esan duenez, "guretzat lan gehiago da, baina gure pazienteendako hobekuntza handia da etxetik gertu halakoak izatea". Azaldu digunez, gaur egun Altsasuko osasun etxean honako langileria dago: 6 mediku, zaintzetarako 3 mediku, pediatria 1 eta bestea lanaldi erdian, 7 erizain, zaintzetarako 3 erizain, pediatriako erizain bat lanaldi erdian (astelehenetik), eskola erizain bat, 5 administrari eta bi fisioterapeuta.



Gure Esku Dagok Bilboko manifestaziora deitu du

Kataluniari babes emateko manifestaldia bihar, 17:30ean, La Casillatik aterako da

SAKANA

Erabakitze eskubidearen alde lan egiten duen taldeak bi astetan bigarren aldiz manifestazioa deitu du Bilbon. *Demokrazia. Erabakitze askatasuna* lelo hori du Gure Esku Dagok antolatutako manifestazioak. Deitzaileek Kataluniako erreferenduma babestu eta Euskal Herriarendako ere erabakitze eskubidearen aintzatespena eskatuko dute. Baita "eskubide zibil eta politikoen eta askatasun demokratikoen alde" egitea ere. Deialdiarekin bat egin dute,



Orain urte batzuk egindako giza-katean kataluindarrak egon ziren Arbizu aldean

besteak beste, EAJk, EH Bilduk, Ahal Duguk, ELAk eta LABek. Gure Esku Dagoko Sakanako taldeek autobusa antolatu dute Bilboko manifestaziora joan ahal izateko.

Altsasuko gaztetxeak ostegunean 27 urte beteko ditu

Altsasuko Gazte Asanbladak 1990eko lastailaren 5eko arratsaldean okupatu zuen Socorro etxea zena eta ordutik gaztetxea dena. Urteurrena ospatzeko AGAk egitaraua prestatu du, lastailaren 20ra arte luzatuko dena.

Ohi bezala, batzarra eginen dute asteazkenean, 19:30ean. Eta urteurrenaren egunean, ostegunean, 19:00etan piztuko dute egitarauari hasiera emango dion etxajua. Merienda izanen da gaztetxera joaten direnendako eta gero *Indarra eta aurrera* oroigarria jarriko dute. 20:00etan, berriz, Chica Sobresalto. iragarria dago; kontzertu akustikoa eskainiko du Maia lenek.



Traktorea baldarra pasatzen.

Nekazaritza ibilgailu eta motorren IAT egiteko 3 aste

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa Irurtzunen astelehenean hasiko da eta 20an Ziordian bukatu.

SAKANA

Heldu diren hiru asteetan Sakanan izanen dira ibilgailuen azterketa tekniko (IAT) egiten duten teknikariak. Nekazaritza-arako ibilgailuek eta ziklomotorrek pasa beharko dute azterketa. Bere herrian ezin duena, beste batera joan daiteke.

Aisialdiko begiraleen lan-poltsarako deia egin du Mank-ek

Euskara Zerbitzuak aisialdiko begiraleen lan-poltsa osatu nahi du. Interesatuak, gutxienez, euskara jakin behar dute (C1 ziurtagiria) eta DBHko titulua edo horren baliokidea izan behar dute. Kontuan izanen da gidatzeko baimena eta autoa eta aisialdiko begirale tituluaren jabe izatea. CVa euskara1@sakana-mank.eus e-postara bidali.

Lakuntzako Udalak liburuzaina kontratatu nahi du

Lakuntzako Udalak liburutegian aritzeko langile bat kontratatu nahi du. Interesatuak Altsasuko enplegu bulegoan izena eman eta euren curriculumak Lakuntzako udaletxean aurkeztu beharko dute. Udaletik zehaztu dutez langabeendako deialdia da egin dutena. Heldu den ostegunera arteko epea dago izena eman eta agiria aurkezteko.

Osasuna zaintzeko bost tailer Burunda mendebaldean

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia hartzen dituen osasun eskualdeko arduradunek urte akabera bitartean bost tailer antolatu dituzte. Saio bakoitzean, taldeka, gaitz jakin baten inguruan ariko dira.

Bizkarrari buruzkoa izanen da aurreneko tailerra lastailaren 19an izanen da, 12:30etik 14:30era, Altsasuko osasun etxean. Dia-

betesaren autokontrolaz ariko dira lastailaren 26an, 11:30etik 13:30era, Olatzagutiko kontsultategian. Lastailaren 31n, berriz, erorketen prebentziorako tailerra izanen da Ziordiko kontsultategian, 12:00etatik 14:00etara. Tailer hori, ordutegi berean, Altsasuko osasun-etxean izanen da azaroaren 7an. Eta, bukatzeko, diabetesaren autokontrolari buruzko lan-saioa antolatu dute azaroaren 23rako, 12:00etatik 14:00etara, Altsasuko osasun etxean.



Errepikatze moduko festa

Ergoienako Egunaren aurreneko esperientzia ona izan da eta, dirudienez, heldu den urtean Unanuk hartuko du. Larunbatean ospatu zuten ergoendarrek euren eguna. Lasterketa probaren ondoren tripotxak dastatzeko eta azokan erosteko aukera izan zen. Bazkaltzera 80 bat pertsona elkartu ziren eta iluntzera arte giro ederrean egon ziren.



ALTSASUKO PEÑAK

Asensio Modarendako saria

Herrian festa giroa jartzeko Altsasuko peñak, Altsasuko Dendarien Elkartearen laguntzarekin, 2. erakusleho txapelketa antolatu zuten. Sare sozialen bidez 104 erabiltzailek erabaki zuten Asensio Modarena izan zela festa giroa hobe islatzen zuen erakuslehoia. 30 euroko hiru erosketa txartelak Ainire Garisoain, Laura Olmos eta Amaia Martinendako izan dira.

Herriz herriko IATren egutegia

Nekazal ibilgailuendako eta ziklomotorrendako.

Data Herria

- Lastailak 2 Irurtzun.
- Lastailak 3 Ihabar.
- Lastailak 4 Uharte A.
- Lastailak 5 Uharte A.
- Lastailak 6 Uharte A.
- Lastailak 9 Arbizu.
- Lastailak 10 Unanu.
- Lastailak 11 Etxarri A.
- Lastailak 13 Lizarraga.
- Lastailak 16 Iturmendi.
- Lastailak 17 Iturmendi.
- Lastailak 18 Altsasu.
- Lastailak 19 Olazti.
- Lastailak 20 Ziordia.



Arbizuarrak Txistor Egunean lanean.

Txistor Eguneko auzolanerako deia egin du udalak

Txistor Eguna lastailaren 8an ospatuko da. Arbizuko Udalak prestakuntzan arbizuarren laguntza "oso garrantzitsua" dela nabarmendu du. Auzolana egin nahi dutenei izena emateko eskatu diete, bai udaletxean (948 460 017) edo info@arbizu.eus e-postan. Bestetik, txistor pintxo lehiaketa lehiaketan astelehenara arte eman daiteke izena.

57 dendek "negozioaren itxiera" iragarri dute

Ibarreko denda horietan "negozioaren itxiera" duen kartela agertu ziren herenegun. Kezkaz eta jakinminez sartu ziren bezero asko establezimenduetara. Eta azaldu zieten hausnarketa bulkatu eta herriko dendetan kontsumitzearen aldeko kanpaina zela.

SAKANA

Bat ikusita, bale. Bigarrenarekin, harrizten hasten zara. Baina hirugarrenarekin kezka sartzen da. Handitu egiten dena kale berean lau denda, edo gehiago, itxiko dutenaren kartela erakusten dutenean. Hala agertu zen herenegun ibarreko 57 denda, negozioaren itxiera iragartzen. Haietako batean sartu ginen itxiera "sukarraz" galdezkak eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartearen kanpaina bat zela argitu ziguten, elkartekideak ez direnek ere parte hartu dutena.

"Mahai gainean kolpe bat jo nahi dugu. Jendeak bere kontsu-



Herenegun itxiera iragarri zuten dendek kolorez betetako kaleak aldarrikatu dituzte.

mo ekintzei buruz hausnarketa kritiko bat egitea nahi dugu", azaldu zigun "itxiko duen" dendarietako batek. Herrian, ibarreen kontsumitzera deitu dituzte sakanarrak, "dendak gure herri eta kaleei bizitza eta argitasuna ematen dietelako". Tokiko lanpostuak sortzearekin batera denda eta establezimenduek Sakanan bertan ekonomia sortzen dutelako ohartarazi dute. Gainera, saltoki eta marka handien monopolioa saihesten laguntzen dutela nabarmendu dute.

Bi galdera

"Nolako herriak nahi ditugu? Biziak eta argiak ala tristeak eta ilunak?" Nabarmendu dutenez, "herriko denda, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduek bizi ematen diote herriari. Pentsatu momentu batez denda eta tabernarik gabeko herriari". Denda eta establezimenduen bidez, "eguneroko erosketak egiteko produktu guztiak herrian bertan aurki ditzakezu; ibarreko dendetan kontsumituz herria hobe funtzionatzeaz aparte, aktibo mantentzen da".

AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN-POLITSA

Gutxieneko baldintzak:

- ✓ Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz.
- C1 egiaztatu beharko da.
- ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.

Kontuan izango da:

- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- Aisialdiko begirale titulua.

Mank
s a k a n a

Harremanetan jartzeko modua: interesa dutenek beren curriculumak honako helbide honetara bidali beharko dute: euskara1@sakana-mank.eus

Altsasukoa terrorismotzat ez hartzea eskatu dute 47 taldek

Sinatzaileek justizia-sistemak gorde beharreko proportzionaltasuna ez duela gorde salatu dute.

ALTSASU

Nafarroako gizarte eta kultur arloko 47 kolektibok hiru eskaera egin dituzte. Lehenik, ferietako liskarreko auziari terrorismo-delitu kalifikazioa kentzea. Bigarrenik, prebentziozko espetxeratze-neurriak kentzea eta preso dauden hiru gazteak askatzea. Eta, azkenik, auzia Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiaren esku uztea. Eskaera horiek Iruñean egindako agerraldian jakinarazi zituzten Iruñean atzo. "Elkarbizitza, askatasuna, justizia eta giza-eskubideen erres-

petuarekiko konpromisotik eta Zuzenbide Estatua osatu behar duten printzipioengatik, gure kezka azaldu nahi dugu".

47 erakundeetako ordezkariak "nahitaezkotzat jotzen" dute "jendarteak, instituzioetako ordezkariak, hedabideak eta justizia-sistemak zuzentasun, inpartzialtasun eta proportzionaltasuna bete ditzaten, errugabetasun-presuntzioa gordetzen dutelarik". Azaldu dutenez, "gertaeren zigor-kalifikazioak eta neurritz gainerako zigor-eskaerak gizarte-alarma sortzen dute

delitu gaitzesgarriari dagokiena baino handiagoak baitira eta ez datozelako bat mediku-txostenetan adierazitako lesioen larritasunarekin".

Gaineratu zuten, "auzipetu eta familiartekoei suposatzen ari zaien konponezinezko kalteaz aparte, azpimarratu behar dugu oker jokatzeko duen justizia-sistema batek jendarte osoarengan babesgabetasuna eta ziurtasun gabezia sortzen duela, askatasunen murrizketa dakarrela eta aurrekari arriskutsua dela jendarte osoarengatik eta beraren eskubide zibilei dagokienez".

Epaiketari begira

Jokin eta Adur aske uzteko azken eskaerari ezezkioa eman zion epaitegiak joan den asteko ostegunean. "Epaiketarako gutxi falta dela" argudiatu du epaileak.



Kolektiboetako ordezkarien prentsaren aurreko agerraldia. @ALTSASUGURASOAK

Hura noiz izanen den ez dago zehazturik, baina defentsek dagoeneko bere probak aurkeztu dituzte. Herenegun despeditu zen epea. Bestetik, altsasuarrak epaitu behar dituen salako kide bat hil egin da eta ez dakite ho-

rrek auziaren data ezartzean eragina izanen duen. Bitartean plataformak jakinarazi du festetako astean Altsasukoa askatzea leloa zuten pankartak jartzeagatik Guardia Civilak hiru gazteri isunak jarri zizkietela.



UTZITAKOA

EAJren zuzendaritza Aralarren

EAJren Euzkadi Buru Batzarrak (EBB) bere asteroko bilera Aralarreko San Miguelen egin zuen astelehenean. Modu horretara, frankismo ondoren han bertan antolatuta zuten aurreneko Alderdi Eguna, haren 40. urteurrena, gogoratu nahi izan zuten. 1977ko irailaren

25ean Aralarreko santutegiaren inguruan jendetza elkartu zuen EAJk, 80.000 pertsona orduko zenbaketen arabera. Diktaduraren ondoren jeltzaleek euren indarra erakutsi zuten. Bileran izan zen Nafarroa Buru Batzarreko presidente Unai Hualde altsasuarra.



UTZITAKOA

Gudari Egunean aurrera begira

"Askatasuna dugu irabazteko!" lelopean ospatu zuen Sortuk Gudari Eguna herenegun. Aurrera egiteko elementuak "herria eta demokrazia" direla azaldu zuten, "biak ala biak Euskal Herriari ukatu zaizkionak, baina herri aske eta justuago batera bidean beti bezain irmo borrokatuko ditugunak". Helburu horiekin konprometitu zirenak omendu zituzten ere.

ARRUAZUKO OSTATUA
ERRENTAN EMATEKO
IRAGARKIA

Baldintzen plegua:
Uharte Arakilgo udaletxean dago interresdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea:
Uharte Arakilgo udaletxean, 2017ko urriaren 16ko 14:00ak baino lehen.

Uharte Arakilen, 2017ko irailaren 29an.
Peio Betelu Garboa,
Arruazuko Alkate Presidentea

Arruazuko Udala

English Begoña

·HH LH DBH·

·4 urtetik aurrera·
·talde txikiak·

650 034 380
·Arbizu·

Arbizu
Embutidos y patés

Tradizioaren zaporea

www.embutidosarbizu.es

info@embutidosarbizu.com
T. 948 460 628

Lakuntza eta Etxarri Kataluniari begira

Lakuntzako Udalak astelehenean egin bezala, Etxarri Aranazko Udalak gaur, 20:30ean, bilkura berezian, Kataluniari buruzko mozioa onartuko du. Bestalde, EH Bilduk kontzentrazioak deitu ditu herri guztietako plazetan, bihar, 12:00etan.

SAKANA

EH Bilduk aurkeztutako idatzi horretan udalek “zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak eginen duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko”.

Udalek, aldi berean, “Kataluniar herriaren eta Parlamentaren kontra Espainiar estatuak buruturiko erasoak salatu eta arbuiatu” dituzte. Horretaz aparte, “Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki” salatu dute. Aldi berean udalek

“Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa” hartu dute. Azkenik, igandeko “emaitza errespetatzen” dutela eta “instituzio eta eragileei ere berdina egitea” eskatu dute.

Kataluniara

Udalbiltzako 100 hautetsi “Kataluniari eta katalanei babesa ematera” joanen dira igandean. Haien artean dago Etxarri Aranazko alkate Eneka Maiz Ulaiar. Nazioarteko bisitari gisa, Udalbiltzako kideek “bozketa eguna

ikuskatu, kataluniarrek bozkatzeko duten eskubidea babestu, eta, behar izanez gero, egin beharreko salaketa egiteko”. Udalbiltzako hautetsiak Kataluniako Independentziaren Aldeko Udalerrien Elkartearen (AMI) “eskutik” izanen dira Katalunian euren egitekoa betetzen.

Kontzentrazioak

EH Bildu koalizioak deituta, Kataluniari babesa azaltzeko herri guztietako plazetan kontzentrazioak eginen dira larunbatean, 12:00etan. Altsasuren kasuan, elkarretaratzea 13:00etan izanen da.

Katalunian bizi den ezohiko egoera salatzen kontzentrazioa

Udalak deitu du eta gaur, 19:00etan, eginen da. Ordu erdiz udaletxearen parean egonen dira

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak Geroa Bairen, EH Bilduren eta Goazen Altsasuren botoekin Kataluniari buruzko erakunde-adierazpena onartu du. “Askatasunarekin, demokraziarekin eta giza eskubideekin eta eskubide politikoekin konpromisoa adierazi eta elkarrizketatutako konponbide baten aldeko apustua” azaldu nahi du Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak. “Gatazka politikoak konpontzeko bide bakarrak elkarrizketa eta negoziazioa” direla berresten du aldi berean. Horregatik, osiralean ordu erdiko bilkuran parte hartzera hots egin ditu altsasuarrek, 19:00etatik 19:30era.

Adierazpen horretan, Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak “Kataluniako autonomiaren interbentzioa eta es-

tatuko segurtasun indarrek Generalitateko legezko ordezkarien atxiloketa eta egoitzen miaketa egindako interbentzioa gaitzetsi eta kezka hartu” du. Udaleko Bozeramaileen Batzordeak PPren Espainiako Gobernuari premiari du “demokraziaren oinarrien kontra egiten duen oinarritzeko eta funtsezko askatasunen kontrako estrategia errepresiboa bertan behera uzteko”.

Azkenik, Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak “funtsezko printzipio demokratiko guztiekin” konpromisoa berrestu eta “Kataluniako herriei eta PPren Espainiako Gobernuaren errepresio politikoa eta antidemokratikoa jasaten duten pertsona eta erakundeei” elkartasuna azaldu die. Udaletik altsasuarrei bilkuran parte hartzeko gonbidapena egin zaie.

Edozer gauza behar duzula...

Jo Sakanako erakusleihora












Zu non zaude?

publi@guaixe.eus
• 948 564 275
• publizitatea@guaixe.eus

San Migel, gaurkoa egun handia Aralarko santutegian

Bost elizkizun izanen dira gaur: 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:30ean meza nagusia eta 18:00etan

SAKANA

Kristau eta sakandar askorendako egun seinatua da gaurkoa, San Migel. Horregatik, asko eta asko izanen dira Aralarko santutegira igoko direnak. Fededun etorrera handi horrendako bost elizkizun prestatu dituzte, eta bakoitzaren ondoren Aralarko aingerua gurtzeko aukera izanen dute fededunek. Arratsaldeko mezan Aurelio Sagasetak zuzentzen duen Iruñeko katedralako Musika Kaperak eta bere orkes-

trak edertuko du meza; Haydnen *Te Deuma* eskainiko dute.

Igandean beste hitzordu berezi bat hartuko du santutegiak. 12:30eko meza nagusia hildako Aralarko Deun Mikel Goiainguruaren Kofradiako, Anaitasuneko eta santutegiko ongile guztien aldekoa izanen da. Elizkizunean Iruñeko Gaudeamus gregoriar abesbatzak *Hilen meza* gregoriarra abestuko du. 17:00etan, berriz, Gaudeamus berak bezpera abestuak eskainiko ditu.



Greziako errefuxiatu eremu bat.

Herriko aniztasuna plazan erakutsiko dute bihar eguerdian

Errefuxiatuen inguruko argibideak eman eta herriko kultura desberdineko jatekoa probatzeko izanen da

ETXARRI ARANATZ

Sakana Harrera Haranak ferien barruan Ongi etorri munduko zaporeak ekimena prestatu du. Haren bidez Europako mugetako egoera larria salatu nahi dute. Horretarako, kontinenteko mugetan hainbat sakandarrek ateratako argazkiak erakutsiko dituzte eta migratzaileek bizi duten drama azaleratuko dute. Erakusketa osatzeko errefuxiatuen eta migratzaileen inguruko informazio-panelak jarriko dituzte.

Jatekoen bidez, herrian bizi diren kultura desberdinak eza-gutzeko aukera izanen da. Sa-

kana Harrera Haranatik azaldu dutenez, Ekuador, Senegal, Maroko eta Etxarri Aranazko jatekoak prestatuko dituzte. Kultura bakoitzeko etxarriarrek etxetik prestatutako jakiak eramanen dituzte plazara eta 12:00etatik aurrera dastatzeko emanen dute. Beste herrietan munduko arrozak prestatzen badira ere, Etxarrin arroza edo beste edozein jateko eskainiko dute. Eguerditik aurrera Etxarriko plazatik pasatzen direnak arabiar kaligrafia tailerlean parte hartzeko aukera izanen dute. Henna irudiz apaintzeko ere.

OLATZAGUTIAKO SANMIGELAK

Sanmigelek hiru festa egun ekarri ditu

Festak abiaraziko dituen etxajua Olatzagutiko elikagai bankuko kideek izanen dute. Egoera zailan dauden familiendako jakiak biltzen eta banatzen egindako lana aitortu nahi du horrela udalak. Biharko mendi lasterketak Luisitoren aldeko bazkariari tokia utziko dio. Herriko pilotari ohiei aitortza eginen zaie larunbatean ere. Igande goiz-eguerdian azoka izanen da, baita munduko arrozak dastatzeko aukera ere. Haurrendako jolasak eta sentsibilizaziorako tartea ere.



14:30 Herri bazkaria. denok Luisitoren bat, San Migel plazan (euriarekin kiroldegian).

17:30 Pilota partidak Olatzagutiko pilotari profesional ohiei aitortza, frontoian, doan (Sutegi taldea eta udala).

20:00 Japoniar bonbak, Intsumisio plazan.

20:00-22:00 Disko mugikorra eta Zumba Kids San Migel plazan.

20:00 Banaketa San Migel plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-04:00 Dantzaldia Kapri taldea, San Migel plazan.

IGANDEA 1

11:00-14:30 Artisau azoka San Migel plazan (euriarekin kiroldegian).

Munduko Arrozak.

11:00-13:00 Txu-txu tren.

11:30 Kalejira. Konpartsurekin eta Sakanako Trikitilariekin.

12:00-14:00 Ahuntz-gazta egiteko tailerra. Haurrendako.

12:00 Las águilas de Valporquero hegazti harrapakarien ikuskizuna. Historia-memoriaren parkean (euriarekin, frontoian).

14:00 Munduko Arrozak dastaketa.

16:00-19:00 Txu-txu tren.

16:30-19:30 Kartak eta giza-futbolina, Areto futboleko pistan.

19:00-21:00 Dantzaldia Raizti dj-rekin, San Migel plazan.

20:00 Japoniar bonbak Intsumisio plazan.

20:00 Banaketa San Migel plazan.

21:00 Zezensuzkoa.

OSTIRALA 29

19:30 Txupinazoa Kultur etxetik, erraldoiak eta buruhandiak.

19:30-22:00 Dantzaldia Fidel Zelaia, San Migel plazan.

20:00 Japoniar bonbak Intsumisio plazan.

20:00 Banaketa San Migel plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

LARUNBATA 30

09:00 Dianak Olazti eta Ziordiko abesbatzak.

09:00 Olatzagutia-Urbasa XI. mendi lasterketa

13:30 Mendi lasterketako sari banaketa.

Ekainen bihar ospatuko dute eta Egjarretan ez da ezer izanen

Egjarretarrek festak agorrileko aurreneko asteburura aurreratu zuten, orain ez dute ezer antolatuko. Ekainen, berriz, bihar 70 bat pertsona bazkaltzera elkartuko dira. Ondoren, musean edo partxisean ariko dira. Afaldu nahi dutenendako kaldereta izanen da. Lizarragan sanmigeldarrak elkartuko dira eta Arbizun auzatea izan ohi da.



Ekaiko kontzeju etxea eta elkarte.

Altsasuko erakusleho txapelketa Asensio Modarendako

Herrian festa giroa jartzeko Altsasuko peñek, Altsasuko Dendarien Elkartearen laguntzarekin, 2. erakusleho txapelketa antolatu du. Sare sozialen bidez 104 erabiltzailek erabaki zuten Asensio Modarena izan zela erakusleho onena. 30 euroko erosketa txartelak Ainire Gari-soain, Laura Olmos eta Amaia Martinendako izan dira.

UHARTE ARAKILGO SANMIGELAK



Txupinazo bertikala

Joan den igandean jokatu zen Km Bertikala probako antolatzailerei egindako lana aitortu nahi die udalak. Horregatik, probaren 9. urteurrenean Sanmigelako festei hasiera emateko etxajua piztuko dute.

Gaur gazteei begira gehienbat, igandean nagusiei begira. Erraldoi eta buruhandien konpartsa egunero izanen da kalean, Huntza musika talde entzutetsua, haurrendako jolasak eta auzateak ez dira faltako. Azken horretan ardo banaketa, duela gutxira arte, kaleka egiten zen, kale nagusiek bina katilu izaten zituzten, baita haiek gordetzen zituzten "buruzai" bana ere. Katillu bakoitzak bere identifikazioa du eta 1.805 urtekoak dira.

OSTIRALA 29

11:30 Meza.

12:00 Festei hasiera emanen dion suziria.

Kilometro Bertikalaren eskutik. Jarraian, auzatea plazan.

12:30 UharTE Arakilgo erraldoi eta buruhandi konpartsa.

14:30 Koadrilen arteko VII. Paella lehiaketa

(udalak ardoa, ogia, mahaia eta aulkiak jarriko ditu).

18:00 Altsasuko gazteen aldeko argazki jendetsua.

18:30 Elektrotxufila.

20:00 Auzatea.

20:00 Play Back lehiaketa (parte hartzeko izena momentuan eman behar da, 19:30ak baino lehen).

22:00 Zezensuzkoa.

00:00 Punk-rock kontzertua Embajada taldea.

01:30-04:00 Jo ta Txo dj.

LARUNBATA 30

12:00-14:00 Haurrendako parkea eta futbolin erraldoia.

12:00 UharTE Arakilgo erraldoi eta buruhandi konpartsa.

13:00 Auzatea.

17:00-19:00 Haurrendako parkea eta futbolin erraldoia.

19:00 Txokolatada.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Disko festa Fher dj-rekin.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30 Kontzertua Huntza taldearen

01:45-05:45 Disko festa Fher dj-rekin.

IGANDEA 1

12:00 UharTE Arakilgo erraldoi eta buruhandi konpartsa.

13:00 Auzatea.

14:30 Jubilatuen bazkaria (eguraldi txarra eginez gero, frontoian izanen da).

16:00-18:00 Bazkalostea Andoni Gastaminza akordeoilariarekin.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Mariatxiak Raza Azteca.

22:00 Zezensuzkoa.

ETXARRI ARANAZKO FERIAK

Asteburu bete feria

Bihar eta etzi feriak ospatuko dira Etxarri Aranatzen. Azoka dena igande goizean egingen da, korrikalariak mendira-joan etorria egiten duten bitartean. Baina aurtengo egitarauko berrikuntzak bi dira. Hura zabaltzen duen Sakana Harrera Haranaren Ongi etorri munduko zaporeak ekimena eta igande arratsalde izanen diren pilota partidak. Jakina, auzaterik ez da faltako, ezta Sakanako artzainen gazta txapelketa ere.

LARUNBATA 30

12:00 Ongi etorri munduko zaporeak.

Europako mugen egoera salatu eta janariaren bitartez herriko aniztasuna plazara atera. Lurralde desberdinetako jakien dastaketa. Argazki erakusketa. Arabiar idazkera tailerra. Sakana Harrera Harana.

12:30-14:00 Erakustaldia Swing dantza eta dantzatzeko tailerra.

13:30 Etxarriko erraldoi eta buruhandien konpartsa.

17:00 Talo tailerra Saralegitarrekin.

18:30 Sakanako Trikitilariak.

18:30 Bordetxe abere zirkoa.

20:00 Auzatea Karriestu elkartearen eskutik.

20:00 Salbea (elizak antolatutik).

20:30-22:00 Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-03:00 Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

IGANDEA 1

10:00-14:00 Etxarriko animalien erakusketa.

EKOIZLE ETA ARTISAUEN AZOKA

11:00 XLII. Mendira joan-etorria (Udaberri elkarteak antolatuta).

11:15 Auzatea Larrañeta elkartearen eskutik.

13:30 Sakanako Artzainen XIV. Gazta Txapelketa.

17:30 Sukaldaritzako tailerrak.

17:30 Pilota partidak Euskalerriri frontoian, doan.

19:00-22:00 Dantzaldia Ken bat taldearekin.

21:00 Zezensuzkoa.





Pilotariak Olaztiko partida batean.

PILOTA Herriko pilotari ohiak omenduko dituzte bihar Olaztin

San Migel festetan Sutegi klubak eta Olaztiko Udalak Olaztiko pilotari profesional ohiei errekonozimendua egingo die. Horretarako, pilota jaialdi bikaina antolatu dute, bihar, larunbatean, 17:30ean, doan. Sutegi Pilota Eskolan trebatzen ari diren pilotarien arteko partidaren ondoren, Xalاک eta Azanzak Saralegi eta Gorriti izanen dituzte aurkari partida nagusian.

PILOTA Etxarriko ferietan pilota jaialdia antolatu dute

Etxarri Aranazko ferietan igande arratsaldean pilota jaialdia hartuko du Euskalerrriari pilotalekuak. Igandean izanen da, 17:30ean.

Sarrera dohainik izango da eta herriko pilotariak lanean ikusteko aukera izango da, gizonetakoak eta emakumezkoak. Hasteko, lau t'erdian Ansotegik Araña izango du aurkari. Ondoren, emakume pilotarien txanda izango da. Binaka, emakumezkoetan Leire Etxanizek Olatz Ruiz de Larramendirekin ariko da eta azken honen ahizpa Maite eta Yanira Aristorena etxarriarra izango dituzte aurkari.

Eta azken partidari, Murgiondo eta Lasa III.a etxarriarrek Saralegi eta Martinez de Eulateren kontra jokatu dute.

Aipatzekoa da aurten Etxarri Aranatzek ez duela, ferietan, aizkora txapelketarik hartuko. Nazabal aktibo zegoenean ohikoa izaten zen ferietan Nafarroako txapelketako kanporaketaren bat edo finala bera hartzea.



Jose Luis Beraza, podiumaren gorenean, Euskal Herriko Proba Konbinatuen txapelketako lehen beteranoa izan baitzen. GUAIXE

Osa eta Perez azkarrenak Beriainen

MENDI LASTERKETAK IX. Uharte-Arakil Beriain Kilometro Bertikaleko lehen sakandarrak Beñat Katarain eta Erkuden San Martin izan ziren. Jose Luis Beraza uhartearra lau aldiz igo zen podiumera, sariak jasotzera. Jendetza bildu zen Beriainen

Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan zituen Aralar Mendi elkarteak antolatutako aurtengo Uharte-Arakil Beriain Kilometro Bertikalak (5 km, 1.023 m desnibela), 195 korrikalari. Eguraldia, elegantea, eta Beriain igotzeko erronka, beti itzela. Aurtun, gainera, berrikuntza zuen probak: proba kronometratua izan beharrean, korrikalari guztiek aldi berean hartu zuten irteera. Eta horrek eragina izan zuen, erritmoa behar baino gehiago estutu baitzuten korrikalari batzuek eta gero, kontuak.

Osaren azkena?

Aitor Osa, Didier Zago eta Imanol Goñi korrikalarien artean erabaki zen proba. Indartsu hasi zen Zago, baina lasterketak 25 minutu zeramatzanean Osak Zago gainditu zuen eta aldea ateratzen hasi zen. Horrela, Osa bakarrik iritsi zen Beriaingo helmugara (40:56). Gipuzkoarrak ez zuen berak 2015ean ezarritako errekorra gainditu (39:54),

baina kontentu zegoen egindakoarekin. Igandekoarekin, lau garaipen lortu ditu jarraian. "Laugarren garaipena eta uste dut azkena izango dela, 44 urte ditudalako. Beti esaten dut berdina eta gero atera egiten naiz, baina aurrean egoteko sakrifizio handia egin behar da, eta urteak aurrera doaz, lana... " aipatu zuen. Aitortu zuenez, aurtengo orain arteko garaipenik ederrena izan da. "Sekulako maila zegoen. Zago, Goñi... ederki estutu naute baina irabazi ahal izan dut" gaineratu zuen.

Katarain eta San Martin, lehen sakandarrak

Osak 20 segundo atera zizkion Didier Zagori (41:16) eta 35 segundo Imanol Goñiri (41:31). Lehen sakandarra Beñat Katarain lakuntzarra izan zen, helmugan seigarrena (45:01). Mikel Rubio irurtzundarra 10.a sailkatu zen (46:30). Aipatzekoa da Jose Luis Beraza lehen beteranoa izan zela: uhartearra 13.a iritsi

zen helmugara (46:54). Emakumezkoetan, aurreko urtean bigarrena sailkatu zen Virginia Perezek ez zuen areriorik izan eta hasieratik hartu zuen aurrea (49:33). Errekorra apurtzeko 6 segundo eskasera geratu zen. Sakandarretan, Erkuden San Martin 9.a sailkatu zen (1:01:25)

Jendetza bildu zen Beriaingo maldetan, korrikalariak animatu eta proba jarraitzera. Eta Uharte Arakil Beriain Facebook orritik zuzenean jarraitu ahal izan zen proba osoa.

Euskal Herriko Mendi Lasterketen Konbinatuen Beraza txapeldunordea

Uharte Arakilgo proba, Euskal Herriko Mendi Lasterketen Kon-

BERAZARENDAKO IZAN ZIREN TXALORIK BEROENAK: LAU SARI JASO ZITUEN UHARTEARRAK

binatuko Txapelketarako puntuagarria zen. Xabi Lete oñatiar irabazi du Euskal Kopa konbinatua eta Jose Luis Beraza uhartearra bigarrena sailkatu zen, lehen beteranoa.

Izan ere, denboraldi bikaina egin du Berazak. Igandean, gutxira lau aldiz igo zen podiumera, herritarren txalo artean. Uharteko Km bertikaleko lehen beteranoa izan zen, lehen uhartearra, Euskal Herriko Mendi Lasterketen Konbinatuen bigarrena eta lehen beteranoa.

Sakandarrak Beriain Km Bertikalean

*Oharra: Antolakuntzak ez du korrikalarien jaioterriko daturik jarri. Hortaz, gerta daiteke sakandarren bat ez agertzea.

1.Aitor Osa:	40:56
6.Beñat Katarain:	45:01
10.Mikel Rubio:	46:30
11.Aritz Munarritz:	46:46
13.Jose Luis Beraza:	46:54
40.Alatz Agirre:	50:53
69.Asier Reparaz:	55:03
71.Fran Araña:	55:11
76.F. Azkargorta:	55:43
90.Javi Gasanz:	57:27
94.Mikel Lakuntza:	57:25
102.Carlos Mañeru:	57:51
104.Izai Mauleon:	58:06
106.Josu Dorronsoro:	58:11
109.Alberto Mtnez. de Lagran:	58:49
110.Juan Felipe Lizarraga:	58:59
127.Jose Javier Beregaña:	1:01:08
129.Erkuden San Martin:	1:01:25
132.Fermin Astiz:	1:01:31
151.Joseba Galarza:	1:03:47
152.Amaia Razkin:	1:03:48
159.Oskar Lizarraga:	1:04:46
166.Leire Palacios:	1:06:04





Korrikalariak aurreko urteko Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketan. GUAIXE

Beriaini lekukoa hartuta, bihar, Olatzagutia-Urbasa

MENDI LASTERKETAK Korrikalariak goizeko 9:00etan hartuko dute irteera, Clinker paretik. Ibilbide nagusia (26,33 km) eta ibilbide laburra (16,04 km) daude aukeran, Urbasa-Andiako paraje zoragarrietan barna

Olatziko San Migel festekin bat jotzeko da, ohi bezala, IX. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa, Sutegi klubak Olatziko Udaren eta hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin antolatuta. Aurreko urtean bezala, aurten ere bi ibilbide prestatu dituzte: ibilbide nagusia (26,33 km, 1.838 metroko desnibel +) eta ibilbide laburra (16,04 km, 1.122 m desnibel +).

Ibilbideak

Korrikalari guztiak goizeko 9:00etan abiatuko dira Clinker paretik. Zuzenean Urbasako ipar gailurreriako punturik altuenera joko dute, Tontorraundira (1.157 m). Ekialdera eginez, Altsasuko portugaitetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890 m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargagainera helduko dira (1.153 m), atzera ere Morterutxora heltzeko. Kadeteek, gazteek eta ibilbide motza aukeratu duten korrikalariak helmugarako bidea hartuko dute, eta ibilbide nagusia

aukeratu dutenek, aldiz, mendebaldera jarraitu eta lehenik Egiburu gaina igo beharko dute, handik Ziordiko portua hartu arte jarraitu eta hau igo ondoren Gainsoilera (1.068m) iritsi. Hortik aurrera eta gailurreria ekialderantz jarraituz, NA-718aren Urbasako sarreraraino iritsi eta bertatik helmugaraino jaitsiera hartuko da.

Aurreko urtean 95 korrikalari aritu ziren proba nagusian eta 52 laburrean. Nagusian Lhoucin Nassiri (2:57:55) eta Alizia Olazabal (2:57:55) gailendu ziren, eta, laburrean, Mikel Rubio irurtzundarra (1:33:34) eta Igone Campos gipuzkoarra (1:51:42). Biharko, momentuz 44 korrikalari daude izena emanda proba nagusian eta 37 proba laburrean.

Sari potoloak

Bukaeran auzate ederra izango da. Korrikalari guztiak opari poltsa jasoko dute eta Urbasako 10 gazta zozketatuko dira euren artean. Proba nagusiko txapel-

dunek 400 euro, garaikurra eta txapela jasoko dute, bigarrenek 200 euro eta garaikurra, hirugarrenek 150 euro eta garaikurra eta laugarrenek 100 euro. Lehen beterranoek 75 euro eta garaikurra eramango dituzte, eta lehen promesek garaikurra. Proba laburrean, lehen hirurek opari poltsa jasoko dute eta lehen juniorrek eta kadeteek garaikurra.

kaxeta

liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda



Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ



Korrikalariak Hartzabalera igotzeko lanetan, aurreko urtean. UTZITAKOEA

Etxarriko ferietako erronka: Hartzabalera igo eta jaitsi

MENDI LASTERKETAK Mendira Joan Etorriaren 42. Edizioa jokatu da igandean, 11:00etan, Etxarri Aranatz

Etxarri Aranazko Udaberri elkartek, Etxarriko Udak eta Nafarroako Mendi Federazioak makina bat babeslerekin antolatuta, igandean, Etxarriko ferietan, 42. Mendira Joan Etorria jokatu da. Lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako puntuagarria da eta 10 km eta 572 metroko desnibel positiboko proba da. Etxarriko lagun talde batek 1975. urtean egindako apustu batetik sortutako proba da.

Etxarriko plazatik bargara igotzea da erronka, Hartzabalera (1065 m), maiatza jartzen den tokiraino, eta handik berriro plazara jaitea. Aurreko urtean 115 korrikalari hartu zuten parte, horietatik 59 sakandarrak, eta Mikel Beunza (46:11) eta Virginia Perez (52:18) izan ziren garaileak. Beñat Katarain eta Erkuden San Martin izan ziren lehen sakandarrak.

Izena ematea, zabalik

Aurretik www.mendizmendi.com web gunean eman daitezke izena, baina igandean bertan, irteera puntuan izena emateko aukera ere izango dute Etxarri aritu nahi duten korrikalariak.

Bukaeran auzatea izango da eta sari-emateari ekingo zaio. Korrikalari bakoitzak oroigarri bat jasoko du. Horretaz gain, lehendabiziko gizon eta emakumeek 100 euro, txapela eta sari berezia jasoko dituzte, bigarrenek 75 euro eta sari berezia eta hirugarrenek 50 euro eta sari berezia. Bestalde, lehendabiziko gizon eta emakumezko etxarriarrek 50 euro eta sari berezia jasoko dute, eta bigarrenek eta hirugarrenek sari berezia. Lehen beterranoendako ere sari berezia egingo da. Bestalde, errekorrak gaintuz gero (Juan Mari Garin, 2001ean, 42:50), 300 euroko saria emango du Olalde gaztak etxeak.



XV. Nafarroako Mendi Kluben eguna Irurtzunen

MENDIA Igandean, goizeko 9:00etatik aurrera bi ibilbide egiteko aukera izango da Irurtzunen. Ondoren klubaren arteko bazkari autogestionatua egongo da frontoian. Iratxo mendi elkarteak eta Boscok mendi taldeak antolatuko dute eguna

XV. Nafarroako Mendi Klubaren eguna igandean ospatuko da, Irurtzunen, bertako Iratxo elkarteak eta Boscok mendi taldeak antolatuta. Horrela, goizeko 9:00etan hitzordua jarri dute Nafarroako txoko eta klub ezberdinetatik hurbilduko diren mendizaleek. Bi ibilbide egiteko aukera izango dute, luzea, 14 kilometro eta 1.020 metroko desnibelekoa eta laburra, 9 kilometro eta 700 metroko desnibelekoa.

Bi ibilbideak

Bi ibilbideak batera abiatuko dira. Hasieran Ergako Trinitatea igoko dute mendizale guztiak. Behin Trinitatean, martxa lu-



2014an Altsasun antolatuta zen eguna.

zkoek aurrera egin eta Artola gainera joko dute. Ibilian ibilian, Malkorrautsiraino iritsiko dira. Handik aurrera eginez, Arrantzaleen Bidea hartuko dute eta Aixita gazteluaren azpitik pasako dira. Ahizpa Nagusiaren albotik pasaz, autobia azpitik gurutzatuko dute errepedea eta Plazaolako tunelera aterako dira, Irurtzunerara heltzeko.

Ibilbide laburrekoek, aldiz, Trinitatera iristerakoan atzera egingo dute eta etorritako lekutik beretik egingo dute jaitsiera. Behean, eskuin aldeko bidexka hartu, eta mendebaldera joanez, Allegaineraino iritsiko dira. Saien Behatokira doan bidea

utzita, Orazulo dermioan barrena, sakan estu batetik, Larraun eta burdinola ikusiko dute. Antzinako trenbidera iritsiko dira, eta Ardantzezarretik Irurtzunerara iritsiko dira.

Mendizaleek auzatea izanen dute prest Irurtzungo plazan eta, ondoren, frontoian bilduko dira bazkaltzera. Autogestionatutako bazkaria izango da. Ondoren dantza egiteko aukera ez dute galduko.

EHko erdigunerako martxako bazkarirako izena ematea zabalik

Heldu den asteburuan, urriaren 8an, Independentistak sareak, Iratxo Mendi taldeak eta Sakanako Mendizaleak taldeak martxa antolatu dute, Euskal Herriko Erdigunera, Beriaindik gertu. Hiru zutabe aterako dira, 9:30ean Irañetakoa, 8:15ean Unanukoa eta 8:45ean Senosiaingoa. 11:30ean ekitaldi nagusia izango da. Ondoren, herri bazkaria dago antolatuta eta izena ematea zabalik dago, urriaren 5era arte, www.independentistak.eus web gunean edo 943 561 853 telefonoan.

IRRISTAKETA Munduko errekorra apurtu du Ioseba Fernandezek

Ioseba Fernandez irristalari iturmendiarrak bere denboraldirik onenean dago. Txinan jokatutako Mundialetatik 4 domina ekarri ditu, tartean urrezkoa, 100 metrotan. Eta larunbatean 100 metroko munduko errekorra apurtzeko saioa egin zuen Iruñean, Nafarroako Unibertsitatearen kirolaren egunean.

Aurretik berea zen 100 metroko errekorra (9,775 segundo), baina iturmendiarrak 115 ehunenetan apurtzea lortu zuen: 9,660 segundo, hori izan zen larunbatean egindako marka berria. Baina Iruñekoak lehiaketa ofiziala ez zenez, iturmendiarrak ezin izan du errekor berria modu ofizialean erregistratu. Nolanahire, pozik zegoen. "Sasoi ezin hobean nago. Inoiz ez naiz horren ongi sentitu, ez baitut lesiorik eta ezustekorik izan. Horrek bikain entrenatzea ahalbiderratu dit eta oso erregular ari naiz. Momentu gozoan nabil" azaldu zuen txapeladun iturmendiarrak.

Tokian bizi, Lurre kaleak argitu

Altsasu:

Allianz Seguros. Hnos. Sayas
Arquitectura Javier Flores
Asensio Moda
Boutique Ekin
Cafeteria Akeita
Carnicería Aldasoro
Carnicería Sorkunde
Cocinas Santa Cruz
Cortinas Izara
Deportes Intxostia
Deportes Lezea
Electricidad Ramos
Electrodomésticos Ramos
Frutería Cristina
Gertu Sakana Sdad. Coop
Iker Kirolak
Joselen Moda
Joyería Norte
Larka Emakumea Gizona
Lasa Kirolak
Librería ARKATZ Liburudenda
Luresu
Mari Carmen
Marigorri
ML Moda Hombre
ML Moda Mujer

Muebles Santa Cruz
Optica Sakana
Sare Calzados
Tu tienda especial
Txartel
Txikitxo
Xagu informatica

Etxarri
Argiro Optika
Barbería Iñaki Ileapaindegia
Comercial Etxarri Muebles Etxarri
Etxarri Hertz Klinika - Clinica dental Etxarri
Hostogorri Altzariak
Kaxeta Liburudenda
Kume
Lizardi
Sabando

Lakuntza
Autoservicio Juncal
Carnicería Isidoro Arregui
Pescadería Tania

Olazti
Carnicería Pako
Farmacia Olazti Etxagibel

Ergoienako Bira: Álvaro eta Beunza azkarrenak

ATLETISMOA Lizarragan jokatu zen Ergoienako Bira, lehendabiziko aldiz goizez, Ergoienako Egunaren barruan antolatuta. 55 korrikalarik parte hartu zuten, horietatik 29 proba nagusian eta haizea izan zen protagonista nagusia

Larunbatean goizez jokatu zen Ergoienako Bira (8,5 km), Lizarragan, Ergoienako Egunaren barruan. Proba Sakanako Atletismo Koparako baliagarria da.

Txikienak izan ziren goiztiarrenak. 2 eta 7 urteko mailan 8 korrikalari lehiatu ziren, eta 8 urtetik 14 urte bitartekoan, 18. Txikienen artean Oier Rubio izan zen azkarrena, Izei Garcia eta Irati Allenderen aurretik. Eta, 8 eta 14 urte bitartekoetan Oier Puyol gailendu zitzaizen Iratxe Lapuenteri eta Janitz Zufiaurreri.

Proba nagusian 29 korrikalari animatu ziren Lizarraga, Dorrao eta Unanu batzen dituen lasterketa osatzera. Ergoienakoa lasterketa gogorra da, gorabeheratsua, aldapaz eta erritmo aldaketaz betea. Haizeak jotzen zuen, eta horrek gehiago aldrebestu zuen proba.

Azkeneko kilometroan erabaki zen proba. Ordura arte Iñaki Alvaro altsasuarra, Raul Audikana olaztiarra, Sergio Garcia de Eulate altsasuarra eta Adur Senar -lehenengo ergoendarraurrean izan ziren. Senar atzean gelditu zen eta Álvarok eraso jo zuen azken kilometroan, Audikana eta Garcia de Eulate atzean utzita. "Laurok elkarrekin egin dugu ia proba osoa. Haize asko zebilen, eta ia makurtuta joan gara. Unanuko azken jaitsieran errekueratu naiz, baina izugarri sufritu dut" onartu zuen Dantzaleku Sakana klubeko Iñaki Álvaro. Bere lehen garaipena dela aipatu zuen eta Ergoienako Bira irabazi izanagatik "oso kontentu" zegoela. Raul Audikana 2.a sartu zen, Sergio Garcia de Eulate 3.a eta Adur Senar 4.a.

Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarrak aurreko urteko garaipena berretsi zuen. Marta Oteiza bigarrena sailkatu zen eta Leire Estarriaga hirugarrena.



Indarrak berreskuratzeko auzate ederra izan zen. Argazkian, podiuma. GUAIXE

MERCERO FALTAN BOTA GENUEN: IRUÑEAN ZEGOEN, "CROS DE LOS CARROZAS" PROBAN

Txapeldunendako kattolak

Lehen beteranoaren saria Francisco Javier Gomezendako izan zen. Adur Senarren faltan, Beñat Lizarragak jaso zuen lehen ergoendarren saria. Eta probako lehen hiru gizonezko eta emakumezkoak podiumera igo ziren. Txapeldunek kattolak jaso zituzten eta, gainontzekoek, dominak. Bestalde, korrikalarien artean Ergoienako produktuekin osatutako loteak zozketatu ziren.

"Cros de los carrozas"

Merceroendako

Ergoienako Biran Joxe Mari Mercero faltan bota genuen. Izan ere, aldi berean, Iruñeko San Fermin Txikitotan, "Cros de los carrozas" proba ezaguna jokatu zen, 60 urtetik gorakoendako proba, El Bullicio peñatik hasi eta Navarrerria plazan despeditzen dena. Hiru korrikalari

animatu ziren, Jose Mari Mercero tartean. Bera izan zen txapelduna (15,16 segundo). "Proba hau udako polittena da, eta ea hurrengo urtean jende gehiago animatzen garen" aipatu zuen 78 urteko unanuarrek.

Sakandarrak Lizarragan

Ergoienako Bira (8,5 km)

1. Iñaki Álvaro
2. Raul Audikana
3. Sergio Garcia de Eulate
4. Adur Senar
5. Joxeja Maiza
6. Fco. Javier Gomez
7. Juan Carlos Gomez
10. Gorka Arratibel
11. Beñat Lizarraga
12. Asier Estarriaga
15. Izaskun Beunza
16. Juan Pedro Ariz
18. Aingeru Azazeta
19. Santi Agirre
21. Leire Estarriaga
23. Iñigo Orella
24. Ismael Lopez de Goikoetxea



IRATXO

Binakako Botxako txapeldunak

BOTXA Binakako Iratxo Botxa txapelketan, 3. eta 4. postuak erabakitzeko partidan, Txutxurrenek eta Edurne Elustondok Migel Olló eta Joana Goñiri 15 eta 6 irabazi zitien. Eta final handi oso estuan, Mikel Goldarazanak Mikel Gelbentzu eta Iban Lopez hartu zituzten menpean, 15 eta 14.

EUSKAL HERRIKO

ERDIGUNERA MARTXA

URRIAK 8

Zutabeak:

- 08:30 Iratxe Goñiri
- 08:15 Iñaki Alvaro
- 08:45 Adur Senar

11:30 EKITALDIA

13:30 Pletxo-petxo iratxeko partidan

15:00 Bakarreko berriketa

Irakurri: 10€ Iratxe 0€
Izotza emateko: www.irdipromoerrekak.eus edo 943 561 853
Aholkulari: urria 5

INDEPENDENTISTAK

Iratxe Goñiri

Irakurri

Irakurri

Irakurri

Irakurri

Sakanako bizikleta eguna, arrakastatsua

TXIRRINDULARITZA Eguraldi bikainarekin, 400 txirrindulari inguruk hartu zuten parte Mankomunitateak Barranka, Burunda eta Aralar taldeekin antolatutako Sakanako Bizikleta Egunean. Aritzaga ermitaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izan zuten

Igandean, Sakanako Bizikleta Eguna goizeko 9:00etan abiatu zen, Ziorditik. Irurtzuneraino iristea zen asmoa, ibilbide ez lehiakorrean (41,3 km). "Iturmendin, Aritzaga ermita erro-manikoan geldialdia egin genuen. Nicolas Arbizu eta Jose Andres Iza adituek ermitak Sakana gurutzatzen zuen Donejakue bi-dearekin zuen lotura azaldu ziguten" aipatu digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerriko-goitiak. Lakuntzako plazan geldialdia egin zuten, eta hamai-ketakoa hartu ondoren, Irurtzuneraino segitu zuten. "400 pertsona inguru arituko ginen, guztira, primerako giroan".



Sakanako txirrindulari taldeetako kideak aritu ziren ibilbidea antolatzen. GUAIXE

Igor Arrieta uhartearra, Arabako kadeteen erlojupeko txapelduna

TXIRRINDULARITZA Juniorren mailako erlojupekoan Ailetz Lasa ziordiarra laugarrena sailkatu zen

Larunbatean XLIV. San Migel Saria jokatu zen Mungian, aldi berean Arabako Erlojupeko Txapelketa zena, kadeteen eta juniorren mailan. Kadeteen mailan Intersport Irabiako Igor Arrieta izan zen txapelduna (11:32). Uharte Arakilgoak 24 segundo atera zizkion bigarrenari, Luyando-Ganzedo taldeko Javier Ibañezi. Quesos Albeniz taldeko Unai Aznar laugarrena izan zen, 29 segundora, Iker Mintegi (Q.A.) hamaikagarrena, 1:17ra, Inhar Astitz (I.I.) hamaikagarrena, 1:17ra eta Unai Villalobos (Q.A.) hemezortzigarrena, 1:51ra.

Juniorrak

Juniorren mailan, aldiz, Ibon Ruizek (independentea) irabazi zuen Arabako Erlojupeko Txapelketa (21:16). Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa laugarrena

sailkatu zen, 36 segundora, eta bere taldekide Iosu Jaka hogeitaseigarrena, 4:49ra.

Ailetz Lasa bigarrena Uharten

Igandean jokatu zen denboraldiko juniorren mailako Nafarroako azkenaurreko lasterketa, Uharte Iruñean. Bertan juniorrak eta 2. urteko kadeteak lehiatu ziren. Tropel nagusia elkarrekin iritsi zen helmugara eta esprintean Aviron Bayonnais taldeko Patxi Darthayette izan zen txapelduna (1:41:34). Ailetz Lasa (Quesos Burunda) bigarrena sartu zen, Josu Etxeberrria (Intersport Irabia) bosgarrena, Imanol Galarza (I.I.) 26.a, Beñat Etxezarreta (I.I.) 27.a eta Unai Villalobos (Q.A.) 36.a, guztiak irabazlearen denbora berean. Hodei Zia (Q.A.) 47.a sartu zen, 4:19ra, eta Javier Mitxaus (I.I.) 61.a, 7:08ra.



ASPE

600 txakoli botila Asperendako

PILOTA Udan Donostian jokaturako K Pilota Desafioa Aspek irabazi zuen. Asteazkenean Aspeko pilotari guztiak Karlos Argiñanoren upategira joan ziren, irabazitako 600 txakoli botilak jasotzera. Tartean, Albisurekin batera igandean San Mateo Torneoko finala galdu zuen Joseba Ezkurdia zegoen. Victorrek eta Rezustak 22 eta 19 irabazi zieten, final oso estuan.



AINHOA ZILBETI

Jaizkibel: Mendingueta eta Zelaia

AUTOMOBILISMOA 88 piloturen artean, Aitor Zabaleta (Lola BMW) izan zen Jaizkibelgo igoerak dituen 5,470 km-ak osatzen azkarrena (2:32 minutu). Mikel Mendingueta arbizuarra (Peugeot 205 GTI) 45.a sailkatu zen (3:23 minutu) eta Iñigo Zelaia bakaikuarra (BMW 325 i) 47.a (3:25). Pilotuek urriaren 14an jokaturako den Urbasako Igoera dute orain buruan.

AUTOMOBILISMOA

Bakaikuko Katxarro egunerako prestatzen

Bakaikuko Bakarreoetxea elkarteak, Kotxko tabernaren laguntzarekin, III. Katxarro Eguna antolatu du urriaren 7an Bakaikun.

Goizeko 10:00etatik aurrera, ibilgailu klasikoan kontzentrazioa hartuko du Burundako herriak. Motorrak, kamioiak, autoak, bizikletak... denetarik aurkezteko deia egin dute antolatzaileek. Auzatea ere izanen da, Sakanan barnako ibilbidea eta, festa borobiltzeko, bazkaria elkartean (nagusiek 20 euro, haurrek 9 euro). Topaketan parte hartzeko edo bazkarira joateko izena ematea zabalik dago (680 825 557, katxarroeguna@gmail.com).

	GERTU SAKANA ALTSASU Sukalderako tresnerian 50 euroko erosketa egitean %10eko	deskontu-balea hurrengo erosketarako BEA ESTETIKA IRURTZUNI %10eko deskontua, Gandiva	produktuetan. ASENSIO ALTSASU 100 eurotik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 euroko	balea. (eskaintza ez metagarria) IL PADRINO ALTSASU Eguneko menuan txupittoa doan.



Preferente mailako Etxarri Aranatz 2017/2018 taldea. GUAIXE

Etxarrik preferente mailari eutsi nahi dio

FUTBOLA Futbol taldean duten giro bikaina taldearen alde indartsuena dela nabarmendu dute Etxarri futbol taldeko kideek eta mailari eutsi eta ez sufritzea, hori da aurtengo denboraldian espero dutena

Preferente mailan, orain arte jokatuak bi partidak galdu egin ditu Etxarri Aranatzek. "Gaizki hasi gara baina oso luzea da denboraldia. Zer espero dugun? Ba ez sufritzea. Preferente mailari eustea, eta posible bada, goian egotea. Hori nahiko genuke" adierazi digu Etxarriko entrenatzaile eta juntako kide Iosu Murgiondok.

Izan ere, denboraldi konplikatu izango da hau, preferente mailako guztiak bezala. "Taldea gehienek antzeko maila dugu. Iruñeko taldeek beti jokalarik eta baliabide gehiago dituzte, eta hori nabaritzen da. Aurten, akaso, talde indartsuenak goiko autonomia mailatik preferente-

ra jaitsi diren Lagunak eta In-fanzones taldeak dira. Eta Doneztebe ere goian egongo da; aurreko denboraldian hirugarrenak sailkatu ziren. Baina gero gauzak aldatu daitezke. Guk gurea egin beharra dugu..." gaineratu du entrenatzaile etxarriarrak.

Harrobia

Aipatu digutenez, Etxarrik ez du aparteko arazorik izaten taldea osatzeko. Jokalarik gehienak euren harrobian trebatutakoak dira, Etxarrikoak eta Sakanako gainontzeko herrietakoak. "Gehienak Etxarrikoak dira, baina beste herrietatik ere asko etortzen dira gure taldeetara,

eta guk etxekoak bezala hartzen ditugu" nabarmendu du Murgiondok. Baina aldaketak ere badaude. "Lehen soilik futbola eta pilota zeuden. Orain, geroz eta kirol aukera gehiago dago eta nabari da, baina futboleko oraindik harrobia badugu". Benjaminen, kimuen, haurren eta jubentzen taldeak ditu aurten Etxarrik. Kadeteak gutxi ziren, eta ez da taldea atera.

TALDEAREN ALDE INDARTSUENA EUREN ARTEAN DUTEN GIRO BIKAINA DELA NABARMENDU DUTE

Giro bikaina, taldearen alde indartsua

Preferenteko Etxarri taldearen alde indartsuena, taldean dagoen giro bikaina da. "Sekulako giroa dago. Entrenatu ondoren merendatzera biltzen gara, partidaren ondoren buelta bat ematera... hori ona da, indargunea. Eta etorri diren jokalarik berriak ere oso ongi integratu dira" diote.

Aurreko urteko taldetik 7 jokalariren baja izan dute: Mikel Goikoetxea, Asier Urkia, Jurgi Kintana, Julen Iriarte, Jon Razkin, Adrian Garcandia eta Julen Iragi. Haien falta betetzera 5 jokalarik etorri dira: Iñigo Arratibel etxarriarra (San Juan), Javi Fernandez altsasuarra (Aguirain), Darling Quezada altsasuarra (Altsasu), Mikel Martiarena uharterra (jubentzen) eta Iñaki Gonzalo etxarriarra, hainbat urte futbola utzita egon eta gero, berriz taldera itzuli dena.

Eduardo Elso da Etxarriko lehendakaria, Iñaki Elvira lehendakariordea eta diruzaina, Iña Arratibel idazkaria eta Jose Javier Urkia, Jose Guillorme, Fran Gomez, Xabier Errazkin eta Koldo Murgiondo bokalak.

Etxarri 2017/18 preferentea

Jokalaririk:

- **Atezainak:** Ivan Gorritz eta Iñaki Gonzalo
- **Defentsak:** Luis Goñi, Xabi Bakaikoa, Unai Artieda, Iñaki Razkin, Andoni Agirre, Oihan Karasatorre eta Mikel Arratibel
- **Erdilariak:** Gentza Erdozia, Alain Perkaz, Asier Arratibel, Alain Iriarte, Aitor Saez, Iñigo Arratibel, Ivan Cerezo, Javi Fernandez eta Darling Quezada
- **Aurrelariak:** Xabat Goikoetxea, Garat Flores eta Mikel Martiarena
- **Entrenatzaileak:** Josu Murgiondo

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Mutilbera B - Lagun Artea	0-0
Urrozterra - Etxarri Aranatz	5-2

SAILKAPENA	
1. Lagunak	6
14. Lagun Artea	1
16. Etxarri Aranatz	0

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

16:30 Etxarri - Doneztebe / Etxarri

IGANDEAN

17:00 Lagun Artea - Urrozterra *Lakuntzan*

Gure taldeendako, erdipurdiko jardunaldia.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu - Lagunak B	2-0

SAILKAPENA	
1. Aurrera	4
3. Altsasu	3

PARTIDUAK

IGANDEAN

17:00 Beti Kozkor - Altsasu *Lekunberrin*

Estreinuari, bikain aritu zen Altsasu.

ELOMENDI TXAPELKETA

EMAITZAK	
Zaldia - Basati	6-0

SAILKAPENA	
1. Zaldia	3
3. Altsasu	3

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

17:00 Apolo - Zaldia *Noainen*

ARETO FUTBOLA Inter Movistar hartuko du gaur Osasuna Magnak

Aurreko asteburuan garaipen baliotsua lortu zuen Osasuna Magnak, El Pozo Murcia talde ahaltsuari 1 eta 3 irabazi baitzion, defentsan sendo eta kontrako atean asmatuz. Lehen mailako liderra Levante da (6 puntu) eta talde berdea 4.a, puntu berberekin. Gaur, ostiralean, Inter Movistar taldea hartuko du Anaitasunan, 21:15ean.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 euroko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30 euroko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko

zerbitzuekin, makilaje ukitua doan.

GK

SAKANA

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU

%5eko deskontua, 30€tik gorako erosketa eginez gero..



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 29

ETXARRI ARANATZ Nacido en siria Hernan Zinen dokumentalaren aurkezpena eta emanaldia. Ondoren, iheslariei eta haien egoerari buruzko eztabaida.

19:00etan, Gure Ametsa jubilatuta elkartean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.

19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Kataluniarekin elkartasunez Altsasuko Udalak kontzentrazioa hots egin du.

19:00etan, udaletxe parean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, Udaletxe parean

ALTSASU Dunkerque filmaren emanaldia.

22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 30

ALTSASU Altsasutik Lizarrara 92 km-ko joan-etorria egingen du zikloturista taldeak.

09:30ean Baratzeko bide plazako lokomotoratik, .

SAKANA Erreferenduma = Demokrazia kontzentrazioak deitu ditu EH Bilduk, Altsasuko ordu bat beranduago egingen da.

12:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Preso ta iheslayek ebien nehi ttugu manifestazioa deitu dute Etxarriko senideek.

19:30ean, plazan.

IGANDEA 1

ALTSASU Arantzazura mendi irteera Altsasuko Mendigoizaleak antolatuta.

07:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Altsasutik Baizako gainera 47 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.

09:00etan klubeko bajeratik eta 09:40ean Urbasako kanpinetik.

ALTSASU Dunkerque filmaren emanaldia.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, Foru plazan.

ASTEAZKENA 4

ARBIZU Haurtzaroaren zantzuak dokumentalaren aurkezpena eta eztabaida, eskolak antolatuta. 2 euroko sarrera, eskola-materiala erosteko erabiliko dena.

17:00etatik 19:00etara, udaletxean.

ALTSASU Caminos de caminantes zinema gidoiaren inguruko foruma antolatu du Joseba Salegi zinemagileak. Anabel Arraizak eta Amelia Lapuentek gidoiaren pasarte batzuk irakurriko dituzte.

18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 5

ALTSASU La niebla y la doncella filmaren emanaldia.

19:00ean, lortia kultur gunean.



ALTSASUKO UDAL GAZTERI SAILA


ALTSASU

Fokua jarrita


Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuak Intxostiapunta gazte gunean antolatutako argazki ikastaroko lanak. Lastailaren 8ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur gunean..

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 29




Larunbata, 30



Igandea, 1



Astelehena, 2



ZORION AGURRAK



Glin-Glin...
ZORIONAK, beti izango gaituzu alboan, eta zu beti erdian, eehh??? Dediouo, dagoeneko aurrera goaz motel (beti bezala...) segi bizkor teiltatuak gobernatzera! kar, kar, kar...

Zorionak zure urtebetetzean ...

Argazkiak helarazteko:
Altsasuko Foru plaza 23-1 · zorion@guaixe.eus
Ordainketa:
Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian:
ES56 3035 0018 47 01 81012564



ta urte askotarako



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./faxo: 948 468 360 · Telefono mugikarra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA
LAN-ESKAKINTZA
Nafarroa Bizirik Fundazioa Enneco haritzaren memoria proiekturako komunikazio eta komertzializazio arduradunaren bila dabil. Lanaldi erdia eskaintzen da eta antzeko egitasmoetan esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak CVa bidali komunikazioa@enneco.eus helbidera irriaren 6a baino lehen.

Esperientziadun txofer bat behar da kamioi plumbarentzat. Sakanan. Tel 696 999 128. E-mail: asialda@gmail.com

HIGIEZINAK
LOKALAK / ESKUALDAKETA
KUME zentroa fisioterapia bi kontsulta eskualdatzen da. Bi kontsulta eta erabilera antzeko gela bat. Sakanan. Tel 627 650 916.

SALDU
IBILGAILUAK
Salgai Citroen Xara VTS 2.0 HDI, 110 zaldi, diesel, 3 ate, 2003. urtekoa, oso ongi zainduta. Tel 646 76 23 83.

IKASTAROAK
Aisialdiko aurre-begiraleak. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatuta du ikastaroa eta izena emateko azken eguna dira. 14-17 urte artekoendako. Data: irailak 30, urriak 7, 21, azaroak 4 (10:00-14:00), eta urriak 28 (10:00-18:00). Doan.
Altsasuko Udalak eskaintzen: Emakumearen bilgunearena: Genero indarkeria biziraun duten emakume taldea; Bularreko minbizia izan duten

eta duten emakumeen autolaguntza taldea sortzea; Zaindu zure burua; Jendaurrean eraginkortasunez hitz egin; Sare sozialetik kanpo zaude? Aktiba zaitez!; Lentzeria, ehazirik eta jostintza. **Ekonomia Garapenarena:** Kafe konpondu. **Kulturarena:** Antzerki tailerra. **Ludoteka zerbitzua.** **Gazteriarrena:** Serigrafia; Zirkul malabareak; Lanetarako gaitasun pertsonalak; Sortu zure web orria; Hiri-margoa; Asialdiko aurrebegiralea eta aisialdiko begiraleak. **Liburutegia:** Literatura hizketaldiak. Izen-ematea hilaren 26ra arte dago zabalik eta 012 edo 948 012 012 telefonora hots eginez egin daiteke. Literatura hizketaldiena, liburutegian.

Exarri Aranazko Udalak antolatuta: Pintura (asteartean), Soinketa lasaia (astearte eta ostegunetan), Aerobic (astearte eta ostegunetan), Zumba (astearte eta ostegunetan), Yoga (astearte eta ostegunetan) eta Zirkul tailerra (astelehenean). Izen-ematea irailaren 29ra arte zabalik. Horretarako inprimakiak www.etxarriaranatz.eus eta udaletxean daude. Eskatutako datu guztiak bete behar dira. Informazio gehiagorako, udaletxera edo 948 460 004 telefonora jo.

Arakilgo Udalak antolatuta: Oinarriko argazkilaritza (Hiriberrin), Zizak sailkatzeko mitologia tailerra (Hiriberrin), Pilateak (Zuhatzun), Yoga (Ihabarren), Zumba (Zuhatzun), Gimnasia (Ihabarren), Entrenamendu funtzionala (Zuhatzun) eta Latindar dantzak (Zuhatzun). Xaniturri taldeak antolatuta, Eskulanak (Etxarren). Izen-emateko 646 605 732. Bestetik

gogorarazi Etxarrengo frontoiak alokatu nahi duenak 650 557 057 telefonora hots egin behar duela (Migel). Izena emateko epea irailaren 27ra artekoa da; udaletxean 948 500 101 telefonon edo info@arakil.net e-postan. Informazio gehiagorako 634 584 226 edo arakilkultura@gmail.com.

IRAKASKUNTZA
KLASEAK EMAN
Matematika eta fisika klase partikularrik ematen ditut. Tel 650 296 449.

OHARRAK
Sorterri festako afarirako txartelak. Unanun, lastailaren 7an egingen den Sorterri festaren barruan herri afaria izanen da. Txartelak 20 eurotan Lakuntzako Sorginak eta Etxarri Aranazko Xapateko tabernetan salgai daude lastailaren 4ra arte.

Etxarri Aranazko haur txokoa. Astegunetan: 16:45tik 20:00etara zabalik egonen da ikasturte honetan. Izen emateko inprimakia (www.etxarriaranatz.eus) bete eta familiako 5 euro ordaindu behar dira (3035 0116 91 1161043123). Ikasturte hasierako bilera irailaren 28an, ostegunetan, 19:00etan, kultur etxean.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK
GALDUTAKOAK
Urrezko eta zilarrezko kate bat galdu dut Altsasun. Kristalak dauzka. Mesedez, opatu duenak hots egin dezala 651 811 230 telefonora.
www.iragarkilaburrak.com

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. **ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrik") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKERTZA



Pedro Lecea Cuello

2017ko irailaren 16an hil zen, 30 urte zituela.



Zure gurasoek, anai-arrebek, neska-lagunak, amonak eta ilobak, senitartekoek eta lagunak, beti eramanen zaituzte bihotzean.

Une latz hauetan gurekin egon zareten guztiei, bihotzez, eskertu nahi dizuegu eman diguzuen laguntza eta maitasuna.

Lecea-Cuello familia

ESKELA



Lontxo Mazkarian Aramendi

XXV. urteurrena

Esaten ez dena bakarrik baita esan behar zena, eta isilik gordea oromenean betirako.

Maite zaitugu

Etxekoak

ESKELA



Javi Cerviño Anton

"Txixarrin"

Miñak ez duelako amore ematen, zenbat sufritu dugun zaila da esaten. Beti segiko degu lagunak izaten, heriotzak ezin du lotura hau eten.

Eskerrik asko hain oroitzapen onak partekatzeagatik. Inoiz ez zaitugu ahaztuko. Maite zaitugu, lagun! Eta, animo ere Pello Lecea Cuelloren familia eta lagunendako.

Zure lagunak

ESKELA



Martina Senar Senar



Zue gorputzek utzi geittu. Musika aittu orduko dantzan hasten zen gorputz hori soruen eta amizteko etxen hainbeste lan in duen gorputz hori.

Bea gue bihotzetan beti geldituko da musikakin aurpeien loratzen zakizun irribarra, mahian bueltan ta sutonduen gozatatuko

atsalde ta illuntze goxuek, denoi aterpie emateko zue eskuzabaltasune. Ziu, zoin tokien bat in dezula horrenbeste maitetu dituzunekin, guai gozatu zuk debei. Zue gorputzek utzi geittu bei, bea zue irribarre dantzari hori gu denon altzue izeten segituko.

Etxekuek

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €, prezio hauek BEZa barne dute. ► Bazkideek % 10eko deskontua dute. ► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- Aian Senar Madinabeitia**, irailaren 13an Arbizun.
- Inhar Etxeberria Perez**, irailaren 16an Arbizun.
- Mouhamed Sow Gadiaga**, irailaren 16an Olaztin.
- Arwa Bakache Khardaoui**, irailaren 16an Olaztin.
- Jurdan Arraiza Etxarri**, irailaren 21ean Lakuntzan

HERIOTZAK

- Jose Agirre Auzmendi**, irailaren 19an Ziordian.
- Germana Maria**, irailaren 19an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

40 tanatorios **IRACHE** aniversario

"Betidanik"

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

- 948 19 70 70
- @Grupolrache
- Grupolrache
- www.tanatoriosirache.es



Francis Irigoien EROSKI BIDAIKEN.

Irigoienek jaso ditu Udako Argazki Lehiaketako sariak

Francis Irigoien urdiaindarra izan da www.guaixe.eus-en bidez antolatutako udako argazki lehiaketako irabazlea. Berak egindako bi argazkik jaso dute epaimahaiaren eta publikoaren sariak. Eroski Bidaiak-ek oparitutako Costa Dauradan hiru lagunendako (bi nagusi eta ume bat) astebeteko egonaldia da sari bat. Eta, bestea, Kiki argazki-dendak oparitutako sorpresa.



Irigoien KIKI argazki-dendan.

Joseba Salegiren zinema-gidoia hizpide izanen da

Zinemagile altsasuarrak *Camino de caminantes* gidoia idatzi du. Donejakue bidea elkarrekin egiten duten polizia eta presoak dira gidoiko protagonistak. Gidoia irakurri eta hari buruzko iritzia eman nahi duenak asteazkenean, 18:00etan, du hitzordua Iortia kultur gunean. Gidoiaren kopiak liburutegian eta Arkatzen eta Txartelen daude.

"Sortzeak pertsona hobeak egiten gaitu"

Jose Ramon Andak esan zuen hori joan den larunbatean, bere tailerra bisitatu zuten 25 pertsonen aurrean. Segidan datorrenak eskultorearen bisita gidatuaren laburpen bat izan nahi du.

BAKAIKU

Altzutzako Oteiza Museoa Jose Ramon Andaren Kausa formala eta bere erroak azaltzeko aukera eman zioten. Museoko erakusketa arte dago ikusgai. Erakusketa horren osagarri bakaikuarren tailerrera antolatutako bisita gidatua izan zen larunbatean. Andaren tailerreko makina, eskultura eta altzariak pertsonaz inguraturik gelditu ziren hiru orduz. Pieza batek batzuetan,

bisitarien galderak besteetan, Andari bere sortze unibertsoa eta bere erroak azaltzeko aukera eman zioten. Museoko erakusketa eta tailerreko piezen arteko paralelismoak azaldu ditu.

Esan duenez, "orain hain bisita ona ez dudanez, goizter jaikitzen naiz. Egun-argiaren paretatik ez dago. Eguzki argia gehiago baliatzen saiatzen naiz".

Argi handia sartzen den tokian lan egiten duela azaldu du, eta bere lan jarduna "errutina hutsa da. Lanzalea naiz. Ordu asko sartu behar ditut zerbait ateratzeko. Kontzentratuta egon eta ordu ugari sartu. Batzuetan neure buruarekin haserretzen naiz: nola da posible gauzatxo hau egiteko hainbeste denbora behar izatea. Eta lanean ez naiz motela. Baina zorrotza eta autokri-



Jose Ramon Anda.

tikoa naiz. Egiten noa. Lanak eskatzen dit. Bukatua dagoela iruditzen ez zaidan arte, hor segitzen dut. Autodiziplina dut horretan, besteetan ez naiz bature diziplinatua".

Sortzeak Eduardo Chillidak elkarrizketa batean emandako **Hurrengo orrian segi**



BAZTERRETIK

OLATZ ALDASORO

'Kirolak'

Uda honetan Iruñean ospatzen den 'Dantza Zoroan' jaialdiaz gozatzeko aukera izan nuen. Dantza garaikideko zazpi ikuskizun eskaini ziren, bertako, Estatuko beste lurralde batzuetako eta nazioarteko hainbat konpainiaren eskutik, Iruñeko harresian, Zaldi Zurian eta Jitoalari pilotalekuan.

Carmen Larrazen dantza konpainiak bultzatzen duen jaialdi hau 'Harresien Jaialdia'-ren programazioaren barruan zegoen kokatua, non hogeita hamar bat ikuskizun egin ziren guztira: kontzertuak, zirkoa, dantza, bisita gidatuak... abuztuaren 3tik 23ra. 20:00etan puntual hasi zen lehen emanaldia, Zaldi Zuriaren ondoan. Uri Shafar israeldarraren 'The Kolokium', Lucia Nieto eta Maddi Muñozen 'Site Specific' lana eta Roberta Milevoj kroaziarraren proposamenak ikustera bildu ginen jende mordo. Kanean egiten den jaialdia izanik (eta dohakoa), adin eta jatorri desberdinetako publikoa bildu ginen, dantzan

adituak zirenak eta ez ginenak. Lagunekin nengoen eta pieza bat bukatutakoan, bakoitzari iritsi zitzaiona konpartitzen genuen: niri hau iradoki dit dantza honek, niri bestea, bigarren pieza gustatu zait, neri ez hainbeste...

Uri Shafar dantzan zegoela, familia bat gerturatu zen gure ondora; jende andana zegoenez, sorbalda gainean zegoen haurrak familiako beste kideei ikuskizuna deskribatzen hasi zen eta bere azken ondorioa hau izan zen: 'tontoarena egiten ari den mutiko bat dago, baina dibertigarria da!'. Barrez lehertu ginen ondoan geundenok eta baten batek, arrazoa ez zitzaioa falta komentatu ere.

Bide guztiak dira zilegi sormen munduan eta zilegi da bakoitzak bere iritzia pertsonala espresatzea. Aldi berean, gauza ederra iruditzen zait arteak deserrosotasun puntu hori sortarazten duenean ikuslearengan. Azkenaldian dantza garaikidea gorakada handia izaten ari da Euskal

Herrian baina gaian adituak ez garenondako oraindik arrotz xamarra egiten zaigula uste dut, ulergaitza batzuetan, free jazz edo arte kontzeptuala bezala. Disziplina artistiko bat den eanean, agian ez da zertan ulertu beharrik, sentitu egin behar da, baina egia da deserrosotasun sentsazio hori gainditzeko begirada hezi behar dela, eta hori, dantza ikuskizun desberdinak ikusten lortzen da. Hiru pieza hauek bukatutakoan, parkour talde batek Zaldi Zuritik Jitoalari frontoiraino gidatu gintuen, bertan, Laida Aldazen eta Helena Lizariren 'Kirolak' lanaz disfrutatzen. Pieza koreografiko hau Euskal Herriko herri kirolen gaineko behaketan oinarrituta dago eta Iruñeko frontoi mitikoa aparteko kokalekua zen. Euskal kirolak, kirol bihurtu aurretik, eguneroko lanak zirela badakigu; bi dantzari hauek, prozesu hau haratago eraman nahi izan dute, zenbait herri kirolen interpretazio artistikoa

eginaz. Euskal kirolen fisikotasunaz erakarririk, edonork ulertzeko moduko hamabost minutuko dantza ikuskizun aparta sortu dute; berehala erlazioan daitezke dantzariak maisuki gauzatutako mugimenduak, guretzat hain gertukoak ditugun kirolekin: idi-proba, zesta punta, pilota, harri-jasotzea, aizkora... Hau guztia, txalapartaren soinuaz lagundurik. Pieza honen punturik gorenena emanaldiaren bukaerarako utzi dute: Laida, enbor batean bilakaturik eta Helena bere bizkar gainean zutik aizkolaria balitz bezala, oilo ipurdia jartzeko moduko emozioak sortarazi zizkiguten; aizkora eta enborra, eskuak eta gorputza, mugimendu zuzen ta gordinak eta bukaeran, enborraren garrasiak. Zirrarragarria. Dantza garaikidearen munduan murgiltzen hasi nahi duenarendako pieza aparta da hau, ikusleari emozio desberdinak eragingo dizkiona, dudarik gabe.

erantzuna iltzatuta gelditu zitzaion Andari eta, gutxi gorabehera, gogorarazi du: “sortzearena pertsonak gaingitu egiten gaitu”. Zer pentsatua eman zion horrek Andari. “Sortzaile terminoa arinkeriak erabiltzen da. Sortu, sortu... Artista handiak daude. Baina ezerezetik inork ez du ezer egiten. Historiak, onerako edo okerrerako, pisua du”.

Aurre lanketaren garrantzia.

Bozeto txikiz betetako baldak ditu. “Zerbait egiten hasten naizenerako zirriborro asko egin behar ditut”. Baina bozeto horiek guztiak ez dira eskultura bilakatzen: “buruan dudan ideia eta egiten noan zirriborroen arteko akordioa izan behar du. Arraroa da ideia aurrenekoan sortzea”. Buruko zirrimarrak bozeto bihurtzen ahalegintzen da, beraz, sortzaile bakaikuarra, “egin eta egin, eskultura egitea erabaki arte”.

“Eskulturaren zailtasun handienetako bat da ikuspuntu guztietatik ikusi ahal izatea eta guztiak funtzionatzea, zerbait arraroa ez ikustea. Hori izugarri zaila da”. Horregatik, Andak eskulturaren laguntzeko apenas egiten duen marrazkirik; “asko egin behar dira buruan duzun ideia hori lortzeko”. Piezak nola muntatu zehazteko bai egiten dituela marrazkiak. “Eskuan kabitzen den hemengo zirriborroetako edozein ikuspuntu guztietatik ikusi dezakezu”. Eta Jorge Oteiza ekarri du gogora: “ideiarik onena esku-ahurrean kabitzen da”.

“Buztina nahieran moldatzen duzu, baina zurezko edo harrizko pieza bat hartzen duzunean... Urteetako zuhaitz batekin, ni ez noa artista moduan, ea zer bururatzen zaidan. Naturari hainbeste egitea kosta zaion horri ahalik eta probetxu handiena atera nahi diot. Baina materialari errespetua diot. Bultzada horrekin banoa, nire kasuan, oso zaila zait buruan dudan ideia zehatza egitea. Horregatik egiten ditut hainbeste zirriborro”. Ezer tarako balio ez duela dirudi, baina ikuspegi zabalagoa emateko balio diote zirriborroek.

Jatorrian zena eta dena

Oteiza museoko areto batean organikoaren eta geometrikoaren arteko pieza sail bat dago. “Halakoak lehen enbor handie-

tan egiten genituen. Kolaboratzaileak nituen. Berriro izan ahal ditudanean... Enbor hori zain dago. Printzipioz, ideia badut. Baina ziur moldatzen joanen nintzatekeela”. Izan ere, Andak “barruan dagoen eskultura ikusi beharra” duela azaldu du bisitari baten galderari erantzunez. “Batuetan denbora pasatzen da; besteetan, berehala ikusten duzu”.

Eta azaldu du: “enbor handi batekin egin genuen aurreneko eskultura udalak emandako sutarako egur loteko enbor batetik sortu zen. Laguntzaile bat motozerrarekin egurra egiten ari zela, bat-batean iradokizuna: handik zerbait atera nezakeen. Gelditu eta egurra egiten segitzeko eskatu nion”. Ondoren enborretatik sortutako eskultura gehiago etorri ziren. “Ordu-ra arteko eskulturaren prozesua askoz ere arrazionalagoa zen. Beti buztinezko, kartoizko, alambre edo dena delakoarekin bozetoak egiten nituen eta gero horri egokitzen zitzaion egur zatiaren bila joaten nintzen. Baina abiapuntua elementu organiko bat bada, prozesua desberdina da. Enborrak ematen dizun iradokizuna da gehiago”.

Gauza bereziak egiteko jendearen laguntza behar izaten duela azaldu du. “Zuk ezin diozu guztiari irtenbidea aurkitu. Pluralean hitz egiten dut jende hori kontuan hartzen dudalako. Bestela, buruan ditudan ideia batzuk ezin izanen nituzke egin; halako erreminta behar dudalako, edo enborrari bakarrik ezin izanen niolako ekin. Ahal-ko nuke baina...”

Enbor handi batekin egindako azken eskultura, Sartu ahal baduzu, Bilboko Arte Ederretako Museoari utzia du. “Duela bost urte han erakusketa egin nuen eta hemen toki handia hartzen zuen. Museokoek han uzteko proposatu zidaten. Bada, eskultura horren barruan hiruzpalau pertsona sartzen dira. Sarrera estua du. “Hasieratik, enbor barruan sartzeko eskultura bat egin asmo nuen. Izan ere, txikitant, lagunekin basoan jolasten, enbor baten barruan egon izanaren oroitzapena dut. Betirako gelditu zaidan oroitzapena da”. Azaldu duenez, “bizitzan gorabehera handiak izandako zuhaitz baten enborra zen”. Edozein formako zur piezetatik abiatzean “hor ez dago sorpresa handirik.



Anda eskultura baten inguruko azalpenak ematen.



Sortzaile bakaikuarra bisitarien galderari erantzuten.



Eskultorearen tailerreko txoko guztiak ikusi zituzten bisitariak.

Ikusten duzu. Baina enborra askoz ere konplexuagoa da. Azala, huntza... imajinatzen duzu, baina...”.

Materialez, formaz

Haritzak ematen du inguruan halako enborrak eta, horregatik, aritu da harekin. Haritzarekin luze lan egin duela azaldu du. “Tamaina handiko piezak ez direnean, haritza zoragarria da”. Pieza handiak egitea “erokeria” dela azaldu du. Ikusgai dagoen eskultura batez, “beste batzuk bezala, gehiago kostatu da zaharberritzea, muntatzea, eustea. Erreparatuz gero, zirri-

kituak egurrez zaharberrituta daudela ohartuko zarete”. Enbor handi batetik ateratako pieza baten kasuaz ari da azalpenak ematen. Eta ez zartzeko altzaruzko bi pletina sartuak dituela argitu du.

Bisitari batek berea lanaz: “beroagoa, gizatiarragoa, gertuagokoa, halako formak... Oteiza batuetan ertz askokoa da”. Ulertzen zuela bakaikuarrak, “baina ertz askoko obra horiek ni hunkitu egiten naute. Itzelak dira. Hain dira oroitarazleak. Hain gutxirekin hainbeste esateko gai da. Ezagunak zaizkit eta asko esaten segitzen didate.

Gertatzen dena da burdina, edo egurra, eta geometria hutsa eta beste, irakurketa eskasa izan dezakeela. Eta egurra beroa, goxoagoa den ideia dugunez... Nik batuetan erradikalki geometrikoak diren gauzak egiten ditut. Baina kurbetara gehiago jotzen dut. Kurbak tratatzea, kudeatzea oso zaila da; zerbait ongi ez dagoenean nabarmen gelditzen da”.

“Hain edertasun aparta batuetan nik egiten dudan eskultura motarekin talka egiten duela. Intxaurrendoa da. Egur aberatsa, zain ederrekoa. Hurbiltzen bazara zura dela ikusten duzu. Nik lausoduraz hain presente dagoen material horri protagonismoa kentzen diot”. Duela 10-12 urteko eskultura batera hurbildu da: “ikus dezakezue emandako koloreko lausoduraren arrastoak dituela. Gustatu ez zaidanez, orain kentzen ari naiz. Egiten konplexua izan den eskultura da, inportantea da, eta ez nago guztiz pozik. Orain nola bukatu zailantza dut”.

Mahaiarena

Tailerrean berak egindako altzaria dago. “Oholak okertu alboratu egiten dira. Desastre bat da. Zurezko pieza txikiek ez dute hainbeste arazo ematen. Baina, jakina, enbor handiekin eskulturak egiten ditugunean, zain honek zuhaitz handia zela ikustarazi behar dizu”. Ikusleak irudikatu behar du zuhaitz hura. Ohol hau, zerratu zenetik orain lehor dagoela, 7-8 cm-ko urritzea izan du. Urteetako prozesua da. “Bermearrekin lan egiteko hodi hauek sartu behar dizkiozu, zura egonkortu dadin. Oholaren eta oinarriaren arteko lotura hauek bermez egin behar dituzu. Ongi egin dezakezu, baina ohola ez badago egonkortuta, lan guztia pikutara. Hau mugituko litzateke...” Zuraren begiak “beti izorratzen ari dira. Hura kendu eta boligrafoendako eta ezpelaz egindako kutxa bat izanen du”.

Osorik: www.guaxe.eus

"ZERBAIT EGITEN HASTEN NAIZENERAKO ZIRRIBORRO ASKO EGIN BEHAR DITUT"

11 GALDERA

"Erdi Aroko dorrea egiteko, Erdi Aroko garabia behar genuen"

Nafarroa Bizirik fundazioa memoria gunea ari da eraikitzen Etxarri Aranazko Enneco basoan, Enneco, haritzaren memoria egitasmoaren baitan. Euskal estatuaren memoria historikoa berreskuratzea du xede. Bertan, Anjel Mari Garmendia etxarriarrak Erdi Aroko egurrezko garabi bat egin du, pisu astunak altxatu ahal izateko.

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
ETXARRI ARANATZ

1 Zergatik hasi zinen garabi hau eraikitzen?

Proiektuaren barruan aurreikusia zegoen halako garabi bat eraikitzea. Orain dela urte eta erdi inguru sartu nintzen Enneco egitasmoan, auzolanean aritzeko. Garabia egiteko prest agertu nintzen. Hala hasi zen prozesua.

2 Zergatik Erdi Aroko garabi bat, eta ez tresna modernoago bat?

Hori aurrez erabakita zegoen. Erdi Aroko dorrea egiteko, Erdi Aroko garabia behar genuen. Beste tresna batzuekin agian errazagoa litzateke, baina ez luke xarma bera izango.

3 Zeintzuk izan dira eraikuntza-epeak?

Otsailean, egurra zerrategitik nire baserrira eraman genuen. Gero, egurra hiruzpalau hilabetez egon zen lehortzen. Horren ondoren, garabia eraikitzen hasi nintzen. Jada erabiltzeko prest dago.



Anjel Mari Garmendia, Enneco proiektuko boluntarioa. GUAIXE

4 Zer egur mota erabili duzu?

Izeia. Haritzak baino denbora askoz gutxiago behar du lehortzeko. Gainera, merkeagoa da. Arraroa egin daiteke haritzaren parkean izeia erabiltzea, baina zentzuzkoena zen.

5 Laguntzailerik izan duzu?

Kasik ez dut laguntzarik izan. Muntaketa lanetan anaiek eta lagundu zidaten. Baina gainontzeko guztia nik egin dut. Gustura aritu naiz.

6 Dokumentazioa eta planoak nola lortu dituzu?

Nik ikusi nuen hemen eskuz egindako marrazki batzuk zizutela. Eta, maketa bat ere bazegoen. Horiekin, ideia bat egin nuen. Esan zidaten gurgilak hiru metroko diametroa izan behar zuela. Hortik aurrera, garabiaren diseinua landu nuen. Behin arkitekto baten oniritzia jasota, lanari ekin nion.

7 Zer pieza ditu garabiak?

Alde batetik, oinarria eta tripodeta daude. Horiek euskarri lana egiten dute. Gero, gurgil nagusia dago. Piezarik handiena da. Eta, horretaz aparte, soka

biltzeko tresna dago. Poleara doan soka biltzen du horrek.

8 Nola funtzionatzen du?

Gurgilean pare bat pertsona sartzen dira, oinez ibiliz bildu egiten dute soka, eta, hala, tira egiten dute poleatik. Beraien pisua bider hamar altxatzeko aukera ematen du garabiak. Oso ondo dago pisu astunak altxatzeko.

9 Beraz, kirola egiteko ere balio du.

Bai. Kar-kar. Adi ibili behar da. Duen pisuarekin, gurgilak inertzia hartzen du, eta pauso bat ematean, beste bat eskatzen dizu. Kontrolatzen ez baduzu, korrika hasten zara. Kaskarrekoa har dezakezu. Badu galda, eta esker-rak. Atzean dauka, eta pertsona batek aktibatua behar du.

10 Beste nonbaiten ere badago halako garabirik?

Frantzia aldean gaztelu bat ari dira eraikitzen, eta, entzun dudanez, honen antzekoak diren bizpahiru garabiz ari dira baliatzen. Hemen inguruan behintzat, ez dut beste inon ikusi.

11 Ikusmin handia sortu du?

Bai. Pena da bi hilabete lehenago prest egon ez izana. Parkea egunero egon da irekita garilean eta agorrilean, eta bisita asko izan da. Ordea, garabia oraindik ez zegoen prest. Beste batean izan beharko du. Baina, tira, kanpotik pasatzerakoan ere ikusten da. Nahiko deigarria da.

Bazkide sarituak

- Aitziber Etxaiz Soria (Altsasu)
- Angel M^a Urrestarazu Astiz (Etxarri Aranatz)
- M^a Eugenia Igoa Ijorra (Etxarri Aranatz)
- Asun Larraza Uharte (Irurtzun)

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN
AQUARIUM: SARRERA BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN
AQUARIUM: SARRERA BAT



CAMPING
ARTAZA

Ekain berri

kaip

G
gaztezulo

lacturale

AQUARIUM
SAN SEBASTIAN